en sugar bread
es pan de azúcar
fr pain de sucre

azurita

$\text{Cu}_3(\text{CaCO}_3)_2(\text{OH})_2$. Karbonato monokliniko hidratatua, kolore urdin bizia duena.

en azurite
es azurita
fr azurite

B

B horizonte

- en horizon B
- es horizonte B
- fr horizon B

► lurzoru

babesgune

SIN: babesleku; aterpe

- en shelter
- es abrigo
- fr abri sous roche

babesleku

👉 babesgune

badia

- en bay
- es bahía
- fr baie

badlandak

SIN: lur elkorak

- en badlands
- es badlands
- fr badlands; mauvaises terres

bahe

- en sieve
- es tamiz
- fr tamis

bakterio

- en bacterium
- es bacteria
- fr bactérie

baktitroideo

- en bactitroid
- es baktitroideo
- fr baktitroïde

bakuola

- en vesicle
- es vacuola
- fr vacuole

Bal

- en Val
- es Val
- fr Val

► Ordoviziar

balantze hidriko

👉 ur-balantze

balea-bizkar

- en whale back
 es dorso de ballena
 fr revers de baleine

baliabide

- en resource
 es recurso
 fr ressource

baliabide mineral

Gizakiak bere onurarako erabiltzen duen lehengai minerala.

- en mineral resource
 es recurso mineral
 fr ressource minérale

balma

- en balm
 es balma
 fr baume

banadato

VO_4^{3-} talde anionikoa duen minerala. Kristal-egiturari dagokionez, fosfatoen antzekoa da.

- en vanadate
 es vanadato
 fr vanadate

banadinita

$\text{Pb}_5(\text{VO}_4)_3\text{Cl}$. Sistema hexagonaleko banadatoa, apatitoaren isomorfoa. Mineral arraroa eta sekundarioa da, beruna duten mineralen oxidazio-produktua alegia. Banadioaren iturria da eta berunaren mea sekundarioa.

- en vanadinite
 es vanadinita
 fr vanadinite

banaketa-koefiziente

- en distribution coefficient
 es coeficiente de distribución
 fr coefficient de distribution; coefficient de partage

banalerro

- en dividing line

- es divisoria; línea divisoria
 fr ligne de partage

banda-egitura

Azaleramendu-eskalako bi materialen (ehundura nahiz osaeraren aldetik ezberdinak direnen) txandaketa tabularra. Arroka igneo nahiz metamorfikoetan erabiltzen den termino zabala.

- en banded structure; banding
 es bandeado
 fr structure rubanée

banda-egitura tektoniko

- en tectonic banding
 es bandeado tectónico
 fr litage tectonique

banku

- en bank
 es banco
 fr banc

baratze-maila

- en plot patch
 es bancal
 fr carré de jardin; terrasse

barita

BaSO_4 . Sistema ortorronbikoan kristaltzen den sulfato anhidroa, zelestaren isomorfoa dena. Kolorgea edo zurixka, itxura antzekoa duten beste mineraletatik dentsitate altuagatik bereizten da. Barioaren mea garrantzitsua izateaz gain, zundaketa-basa modura erabiltzen da.



Barita: Berbes. Asturias.

en	barite
es	barita
fr	barytine

barkhan

en	barchan
es	barjan
fr	barkhane

barne-deformazio

en	internal deformation
es	deformación interna
fr	déformation interne

barne-geodinamika

en	geodynamics
es	geodinámica interna
fr	géodynamique interne

barne-igurzketako angelu

en	angle of internal friction
es	ángulo de fricción interna
fr	angle de frottement interne

barne-molde

en	inner cast
es	molde interno
fr	moule interne

barne-nukleo

en	inner core
es	núcleo interno
fr	noyau interne

barra

Ur-korrante zein olatuek eratutako erliebe positiboko pilaketa sedimentarioa, harea eta legar-tamainako partikula klastikoez osatuta dagoena. Barrak luzexkak izaten dira (hamarka metroko luzera eta hainbat metrotako altuera) eta egitura konplexua izan ohi dute.

en	bar
es	barra
fr	barre

basa

en	mud
es	lodo
fr	boue

basalto

Arroka magmatiko efusibo arrunta (balio-kide intrusibo gabroa da), kolore ilunekoa (mesokratoa edo melanokratoa), mikrolitiko, plagioklasez ($An > 50$) eta piroxenoz (augita nagusi) osatua; kasuaren arabera, olibino, hiperstena, magnetita eta ilmenita ere izan ditzake, eta askoz kantitate txikiagoan kuartzoa eta feldespatoidak (nefelina, analtzima). Laba basaltikoak oso jariakorrek dira, 1.100-1.200 °C bitartean azaleratzen dira eta 1.000 °C inguruan solidotzen. Urpean ageri direnean, kuxin-labak eratu ohi dituzte. Azkenik, toba, zepa eta ardatz formako bonbak ere era ditzakete. Sailkapena eta izena aldakorrek dira jatorri eta mineralen osakeraren (edo kimikaren) arabera. Basaltoak bi talde nagusitan (segida bolkanikoak) sailka daitezke; horien barruan pixkanakako aldaerak izaten dira.

1. **Basalto toleitikoak** (edo toleitak) basalto aseak dira, mesokratoak. Hurrengo mineralak azaltzen dira: labradorita-bytownita, augita (kaltzio urrikoa), hiperstena eta silizea (bai beiraren osakeran bai kuartzo edo tridimita gisa). Aldiz, ez dute olibinorik izaten. Kontinenteetako eremu handiak hartzen dituzte; egungo ozeano-hondoetan eta uharte-arku batzuetan ere ageri dira eta konplexu ofiolitikoaren goialdea osatzen dute. Desberdintzearen ondorioz, magma toleitikoak andesita bilakatzen dira, eta azkenik erriolita.

2. **Basalto alkainoak** azpiaseak dira, melanokratoak, olibinoz joriak, labradorita eta augitadunak (kaltzio gabekoa eta titanioduna). Toleitak baino Na_2O eta K_2O gehiago dute (oro har, Na_2O ; K_2O ; $Na_2O = K_2O$ dutenean basalto shoshonitiko deritze). Kontinenteetako sumendietan eta batzuetan uharte-arkuetan ageri dira. Desberdintzearen ondorioz, magma basaltiko alkainoak labradorita (andesita labradoritadunak), mugarita erako andesita, trakiandesita eta azkenik fonolita bilakatzen dira. Magma basaltikoa mantuan sor daitekeela dirudi, eklogita edo pirolitaren urtze partzialaren ondorioz; presio altua (sakonera handia) eta urtze partzial txikia badute, basalto alkainoak eratzen dira, eta presio baxuan (sakonera txikian), urtze partzial handiagoaz, basalto toleitikoak.

basamentu

en	basalt
es	basalto
fr	basalte

basamentu

en	basement
es	basamento
fr	embasement

basamortuko arrosa

en	rosette
es	rosa del desierto
fr	rose des déserts; rose des sables

basamortuko berniz

en	desert varnish; patina of desert
es	barniz desértico; pátina del desierto
fr	patine désertique

basanita

en	basanite
es	basanita
fr	basanite

basanita fonolitiko

en	phonolitic basanite
es	basanita fonolítica
fr	basanite phonolitique

Bashkiriarr

en	Bashkirian
es	Bashkiriense
fr	Bashkiriën

➤ Karbonifero

basidiomizeto

en	basidiomycete
es	basidiomiceto
fr	basidiomycète

basur

en	wild waters
es	aguas salvajes
fr	eau sauvage

batial

en	bathyal
es	batial
fr	bathyal

batolito

Azaleramenduan gutxienez 100 km²-ko azalera eta barneko sakonera eta dimentsio ezezaguna duen arroka plutonikozko masa. Lurrazalean inguruko arroak bultzatuz barneratu ohi da eta ondorioz, gehienetan diskordantea izaten da. Osaerari dagokionez, ugariak granitozkoak izaten dira. Bere inguruko arroketan ukipen-metamorfismoa eragiten duenez, askotan kartografia daitekeen aureola metamorfiko nabaria azaltzen du.

en	batholith
es	batolito
fr	batholite

bauxita

Aluminio oxido eta hidroxidoz (batez ere gibbsita, bauxita boehmita eta diaspora ere) osaturiko arroka. Mineral hauetaz gain, silizio askea, lohia, burdin hidroxidoak, eta batez ere buztin-mineralak eduki ohi ditu. Klima tropikal eta subtropikaletako buztin-metakinen osagai arrunta da, eta aluminioaren mearik garrantzitsuena.

en	bauxite
es	bauxita
fr	bauxite

➤ lurzoro

bauxitizazio

en	bauxitization
es	bauxitización
fr	bauxitisation

bazterreko aintzira

SIN: bazterreko laku

en	marginal lake
es	lago marginal
fr	lac marginal

bazterreko laku

bazterreko aintzira

Becke lerro

en	Becke line
es	línea de Becke
fr	frange de Becke

b di re

en	bédière
es	bédière
fr	bédière

behealdiko kono

en	lowstand fan
es	abanico de nivel de mar bajo
fr	cône de bas niveau

behe-aldiko sistema-elkarte

en	lowstand systems tract
es	cortejo de nivel de mar bajo
fr	cortège de bas niveau

behe-mantu

en	lower mantle
es	manto inferior
fr	manteau interne

beidelita

en	beidellite
es	beidelita
fr	beidellite

beira

Magmaren hozte azkarraren ondorioz sortutako material amorfoa. Sarritan arrokaren osagai bakarra da (adib. obsidiana). Beste kasu batzuetan, beira-proporzio aldakorra azaltzen da kristalaren inguruan.

en	glass
es	vidrio
fr	verre

beira- **beiratsu****beiratsu**

SIN: beira-

en	glassy; vitreous
es	vítreo
fr	vitreux

beira(tu)

en	vitriify
es	vitriificar
fr	vitriifier

belar-erroseta

en	herbaceous rosette
es	roseta herbácea
fr	rosette gazonnée

belemnrite

Zefalopodo itsastarren taldeko izaki fosila. Txipiroiekin estuki erlazionaturik daude. Haien eskeletoa hiru zatiz osatuta zegoen: rostruma, fragmokonoa eta prostrakoa. Karboniferotik Kretazeora arte bizi izan ziren, baina ugari izan ziren, batez ere, Jurasikoan eta Kretazeoan.

en	belemnrite
es	belemnrite
fr	belemnrite

Benioff zona

Gutxi gorabehera 45° kontinenterantz okertzen den subdukzio-planoa, zeinean foku sismikoak gertatzen diren. Plaka-tektonikaren teoriaren arabera, ozeano-hondoak zabaldu ahala litosfera mantuan hondoratzen da eta plaka honen goialdeko muga lurrikarak sortzen dira.

en	Benioff zone
es	zona de Benioff
fr	zone de Benioff

► Wadati-Benioff zona**bennettialak**

en	bennettiales
es	bennettiales
fr	bennettiales

bentifakto

en	ventifact
es	ventifacto
fr	caillou éolisé

bentoniko

Itsas hondoan loturik edo aske bizi den izakiaz esaten da. Izaki hauen multzoari bentos edo benthos deritzo.

en	benthonic
es	bentónico
fr	bentonique

bentonita

◆ Batez ere montmorillonitaren taldeko buztin-mineralez eta silizio askeaz osatutako kolore argiko arroka bigun, plastiko eta porotsua. Gehienetan arroka bolkaniko azidoen desbeiratzearaz eta alterazio kimikoaz eratzen da. Ur kantitate handia zurgatzeko ahalmena du, bolu-
mena zortzi aldiz handitzeko gai izateraino.

◆ Batez ere montmorillonitaz osatutako arroka asko izendatzeko erabiltzen den termino komertziala.

en	bentonite
es	bentonita
fr	bentonite

bereizmen

en	resolution
es	resolución
fr	résolution

bergentzia

en	vergence
es	vergencia
fr	vergence

berilo

$\text{Be}_3\text{Al}_2(\text{Si}_6\text{O}_{18})$. Ziklosilikatoen taldeko mineral hexagonala, habitu prismatikoduna eta gogortasun handikoa (H=7.5-8). Daramatzen elementu aztarnen arabera, kolore desberdinak erakutsi ditzake; esmeralda aldaera berdea da.

en	beryl
es	berilo
fr	béryl



Beriloa: Sierra albarrana (el Cabril), Cordoba.

berma

en	berm
es	berma
fr	banquette plage

bermikulita

en	vermiculite
es	vermiculita
fr	vermiculite

bero-**☞ termal****bero-fluxu**

en	heat flow
es	flujo de calor
fr	flux thermique

berraktibatze

en	reactivation
es	reactivación
fr	réactivation

berreskuratze-tasa

en	restitution rate
es	tasa de restitución
fr	taux de restitution

Berthelot-Nerst lege

en	Berthelot-Nerst law
es	ley de Berthelot-Nerst
fr	loi de Berthelot-Nerst

Bertrand lente

en	Bertrand lens
es	lente de Bertrand
fr	lentille de Bertrand

betegarri

en	fill
es	relleno
fr	remplissage

betetze

en	occupancy
es	ocupación
fr	occupation

biaxiko

Bi ardatz optiko eta hiru errefakzio-indize nagusi dituen kristalaz esaten da.

- en biaxial; biaxic
- es biáxico
- fr biaxe

bibalbioak

Bivalvia klasea osatzen duten moluskuak, gorputza alboetatik zapaldua eta bi kuskuko maskorraz babestua dutenak. Ez dute zefalizazioirik, erradula sekundarioki desagertu da eta aizkora itxurako oina dute, hots, alboetatik zapaldua. Gehienetan itsastarrak dira, baina badaude ur gazikara eta ur gezako espezieak ere. Epibentonikoak, askeak eta itsatsiak, eta endobentonikoak izan daitezke. Bibalbioak ugariak dira sakonera txikiko itsasoetako sedimentuetan. Erabilgarritasun estratigrafikoa taldeen arabera aldakorra izanik, murrizta da gehienetan. Kanbriarretik gaur egunera arte ezagutzen dira. Bibalbioen eta brakiopodoen arteko ezberdintasunak honakoak dira: bibalbioetan, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, simetria-planoa bi kuskuen artean dagoenarekin bat dator. Ez dute foramenik eta bi kuskuen artean materia organikoz osaturiko lotailua dute. Brakiopodoetan, berriz, simetria-planoa bi kuskuen artean dagoenarekiko perpendikularra da. Gehienek foramena dute eta ez dute lotailurik.

- en bivalves
- es bivalvos
- fr bivalves

bibrazio

- en vibration
- es vibración
- fr brontage; vibration

biesfenoide

- en bisphenoid
- es biesfenoide
- fr bisphénoïdre

Big Bang

- en Big Bang
- es Big Bang
- fr Big Bang

bikote estereoskopiko

- en stereoscopic couple
- es par estereoscópico
- fr paire stéréoscopique

biltze-arro

- en reception basin
- es cuenca de recepción
- fr bassin de réception

biltze-putzu

- en collector well
- es pozo colector
- fr puits collecteur

binomial (nomenklatura)

- en binomial (nomenclature)
- es binomial (nomenclatura)
- fr binomial (nomenclature)

bioeraikuntza

Batez ere izaki koloniakoi edo sedimentu-biltzaileen (alga, koral, brio zoo eta estromatopridoan, besteak beste) bizitza-jarduera dela eta eratutako kareharrizko gorputza. Gehienetan erliebe positiboa du.

- en bioconstruction
- es bioconstrucción
- fr bioconstruction

biostratigrafia

Erregistro estratigrafikoan azaltzen diren fosilen denborarekiko banaketaz arduratzen den estratigrafia zein paleontologiaren atala.

- en biostratigraphy
- es biostratigrafía
- fr biostratigraphie

biofazio

Ezaugarri biologikoetan oinarrituta definitzen den metakin-gorputza.

- en biofacies
- es biofacies
- fr biofacies

biogeografia

- en biogeography

biogertakari

- es biogeografía
- fr biogéographie

biogertakari

Bizidunek jasandako prozesu geologiko azkarra eta hedapen handikoa.

- en bioevent
- es bioevento
- fr bioévènement

biohermo

Batik bat organismo sedentarioez (koral, alga, foraminifero, molusku, gastropodo eta estromatoporidoez) eta hauen karbonato-zatiez osatutako muino, domo, lente edo arrezife itxurako arroka-masa. Oro har, litologia askotako arrokez inguratutik azaltzen da.

- en bioherm
- es biohermo
- fr bioherme

biohigadura

- en bioerosion
- es bioerosión
- fr bio-érosion

biohorizonte

- en biohorizon
- es biohorizonte
- fr biohorizon

bioklasto

◆ Fosil-zatia.
◆ Landare edo animaliek babeserako edo euskarri gisa duten egitura, osorik edo zatitua.

- en bioclast
- es bioclasto
- fr bioclaste


biokron

Biozona batek definitutako denbora-tartea.

- en biochron
- es biocron
- fr biochron

biokronologia

- en biochronology



Bioturbazio bortitza erakusten duten lutita hareatsuak, bertan *teichicus* lorratza antzematen dela. Albiarra. Armintza. Bizkaia.

- es biocronología
- fr biochronologie

biomikrofazie

- en biomicrofacies
- es biomicrofacies
- fr biomicrofaciès

biostasia

- en biostasy
- es biostasia
- fr biostasie

biostromo

Batez ere organismo sedentarioez edo hauen karbonato-zatiez osatutako geruza itxurako arroka-masa. Oro har, litologia askotako arrokez inguratutik eta inguruko beste geruzen artean kokaturik agertzen da.

- en biostrome
- es biostroma
- fr biostrome

biotiko

- en biotic
- es biótico
- fr biotique

biotita

$K(Fe, Mg)_3(AlSi_3O_{10})(OH)_2$. Miken taldeko filosilikato trioktaedrikoa, kolore ilunekoa. Baldintza geologikoen tarte zabal batean era daiteke, bai arroka igneoetan bai arroka metamorfikoetan ere.

en	biotite
es	biotita
fr	biotite

bioturbazio

Bizidunen ekintzak substratu sedimentarioan duen eragina. Substratua gogortuta dagoenean bioturbazioari biohigadura deritzo.

en	bioturbation
es	bioturbación
fr	bioturbation

biozenosi

Biotopo bateko izakien multzoa. Paleontologian paleobiozenosi ere esaten zaio eta, kasu honetan, aztarnategi bateko biotopo berekoak diren fosil-elkarteari deritzo.

en	biocenosis
es	biocenosis
fr	biocenosis

biozona

Fosil-educian oinarrituz bereizten den arroka-gorputza.

en	biozone
es	biozona
fr	biozone

bipiramide

en	bipyramid
es	bipirámide
fr	bipyramide

biraketa

en	rotation
es	rotación
fr	rotation

birgela

en	virgella
es	virguela
fr	virgula

biribildu

en	rounded
es	redondeado
fr	émoussé

birkarga

Akuiferoko asetze-zonako ur kantitatea handitzen duen berezko prozesua, hau da, berez gehitutako ur kantitatea.

en	recharge
es	recarga
fr	recharge nappe

birkristal(du)

en	recrystallize
es	recristalizar
fr	recristalliser

birkristaltze

Egoera solidoan dagoen arrokan gertatzen den mineral berrien eraketa. Kristal berriak jatorrizkoak baino handiagoak izan ohi dira eta osara mineralogiko berdina edo ezberdina izan dezakete.

en	recrystallization
es	recristalización
fr	recristallisation

birilan(du)

en	rework
es	retrabajar
fr	retravailler

birmobilizazio

en	remobilization
es	removilización
fr	remobilisation

birreflektantzia

en	bireflectance
es	birreflectancia
fr	biréfectance

birrefringentzia

Sistema kubikoko kristaletan izan ezik, substantzia kristalinoetan gertatzen den fenomeno optikoa: eraso-izpi bakar batetik bi errefrakzio-izpi sortzen dira. Bi errefrakzio-izpiak plano perpendikularretan polarizaturik daude eta abiadura desberdinekoak dira. Errefrakzio-indize handienaren eta txikiaren arteko kenketak aztertutako ebakiduraren birrefringentzia definitzen du.

en	birrefringence
es	birrefringencia
fr	biréfringence

birrintze

desintegrazio

birsedimentazio

◆ Aurretik existitzen den arroka sedimentariotik eratorritako materialaren sedimentazioa.

◆ Grabitatearen eraginez gertatzen den sedimentuen edo arroken maldan beherako higadura eta sedimentazioa (adib. uhertasun-korrontea).

en	resedimentation
es	resedimentación
fr	resédimentation

birsorkuntza

en	regeneration
es	regeneración
fr	régénération

birtolestatze

en	refolding
es	replegamiento
fr	replissement

birzurgapen-golko

en	resorption border
es	golfo de reabsorción
fr	bord de résorption

biseriatu

en	biserial
es	biseriado
fr	bisérié

bismutinita

en	bismutinite
es	bismutinita
fr	bismutinite

bismutita

en	bismutite
es	bismutita
fr	bismutite

bitrinita

en	vitrinite
es	vitrinita
fr	vitrinite

bitrodetrinita

en	vitrodetrinite
es	vitrodetrinita
fr	vitrodetrinite

bitumen

en	bitumen
es	bitumen
fr	bitume

bizkar

- 1**
- | | |
|----|--------|
| en | back |
| es | dorso |
| fr | revers |
- 2**
- SIN: hegi
- | | |
|----|-------------------------|
| en | steep bank; steep slope |
| es | ribazo |
| fr | berge |

blastomilonita

Nolabaiteko birkristaltze edo neomineralizazio prozesuak jasan dituen arroka milonitikoa.

en	blastomylonite
es	blastomilonita
fr	blastomylonite

blastozoo

en	blastozoan
es	blastozoo
fr	blastozoaire

blenda

ZnS. Termino zaharkitua. Ikus **esfalerita**.

en	blende
es	blenda
fr	blende

bloke

◆ Solido-egoeran egotziriko piroklastoa, diametroa 64 mm baino handiagoa duena.

◆ Tamaina handiko partikula (arroka, izotza,...).

◆ Faila batek banatutako arroka zein sedimentu-gorputza.

en block
es bloque
fr bloc

bloke alderrai

en erratic block; erratic boulder
es bloque errático
fr bloc erratique

bloke-ibai

en block river
es río de bloques
fr rivière de blocs

bloke-landa

en block field; felsenmeer
es campo de bloques
fr champ de blocs

bloke-tefra

en block tephra
es tefra de bloques
fr tephra de blocs

boehmita

en boehmite
es boehmita
fr boehmite

bogaz

en bogaz
es bogaz
fr bogaz

bokale

en mouth
es desembocadura
fr embouchure

bolkan

➤ sumendi

bolkanismo

Fenomeno bolkanikoen multzoa.
en volcanism

es vulcanismo
fr manifestation volcanique

bolkan-kono

en volcanic cone
es cono volcánico
fr cône volcanique

bolkanologia

Sumendien eta fenomeno bolkanikoen azterketaz arduratzen den geologiaren atala.

en volcanology
es vulcanología
fr volcanologie

bolumen-uhin

en volume wave
es ondas de volumen
fr onde de volume

bonba bolkaniko

en volcanic bomb
es bomba volcánica
fr bombe volcanique

boninita

en boninite
es boninita
fr boninite

borato

BO₃-talde anionikoa duen mineral-klasea. Egitura-ezaugarrien ikuspuntutik silikatoen antzekoak dira, kristal-egiturak eratzeko gaitasuna baitute.

en borate
es borato
fr borate

borax

Na₂B₄O₅(OH)₄·8H₂O. Sodio borato monoklinikoa. Erabilera asko ditu: beira-zuntzaren fabrikazioan, xaboiak eta desinfektagarriak egiteko, etab.

en borax
es bórax
fr borax

bornita

- en bornite
- es bornita
- fr bornite

botroidal

Agregatu minerala, mahats-mordoaren itxura duena.

- en botryoidal
- es botroidal
- fr botryoïdal

boudinage

Kompetentzia desberdineko geruza-multzoan (kuartzita eta eskistoa, adibidez), geruzekiko paraleloa den estentsioa dagoenean gertatzen den prozesua. Estentsio horren ondorioz, geruza kompetenteenak ebakidura errektangular edo eliptikoko (geruzen arteko likatasun-contrastearen araberrako) egitura luze eta paraleloetan zatitzen dira (boudinak). Hortaz, estentsioaren norabidea boudinen ardatzekiko perpendikularra izaten da eta boudinen artean sortu ohi diren hutsuneak inguruko materialen (material inkompetenteen) jarioaz edota mineral berrien (kuartzo edo kaltzitaren) hazkundeaz betetzen dira. Estentsioa bi norabi-

detan gertatzen bada, geruza kompetentea egitura dimentsioberdinetan zatitzen da eta boudinage mota horri txokolate-tableta esaten zaio.

- en boudinage
- es boudinage
- fr boudinage

Bouguer anomalia

Altuera, latitude eta orografiagatik egin beharreko zuzenketak egin ondoren lortzen den puntu baten grabitate-anomalia.

- en Bouguer anomaly
- es anomalía de Bouguer
- fr anomalie de Bouguer


Bouma sekuentzia

Turbidita batzuetan ageri den 5 zatiko segida bereizgarria eta finkoa; zatiren bat, edo gehiago, falta daiteke. Zatiak ondorengoak dira, oinetik hasita: gradazio normala (a); xafladura horizontala, goi-jarioko erregimenekoa (b); ripplezko xafladura gurutzatua, edo/eta konboluta-geruzapena, (c); xafladura horizontala, behe-jarioko erregimenekoa (d), eta lutitak (e).

- en Bouma sequence
- es secuencia de Bouma
- fr séquence de Bouma



Bouma sekuentzia osorik duen turbidita. Eozenoa. Getxo. Bizkaia.



Bowen erreakzio-segida: magmatik eratzen diren mineralen kristaltzearen araberako segidak.

Bowen erreakzio-segida

Magmatik eratzen diren mineralak kristaltzearen arabera ordenaturik agertzen dira. Kristaltze-ordena hori Bowen-ek aztertu zuen lehenengoz eta temperatura eta magmaren hasierako osakeraren ondorio zela aditzera eman zuen. Bi segida bereizten dira:

- Segida ez-jarraia (melanokratoak: kolore iluneko mineralak): silikatoen barne-egiturak ezberdinak dira. Adibidea: olibino→piroxeno→anfibol→biotita.

- Segida jarraia (leukokratoak: kolore argiko mineralak): barne-egitura berdina dute, baina goi-tenperaturakoak dentsuagoak dira. Plagioklasen segida: anortita→bitownita→labradorita→andesita→oligoklasa→albita

- en Bowen's reaction series
- es series de reacción de Bowen
- fr suite réactionnelle de Bowen

Bragg-en lege

- en Bragg's law
- es ley de Bragg
- fr loi de Bragg

brakiantiklinal

- en brachyanticlinal
- es braquianticlinal
- fr brachyanticlinal

brakidium

- en brachidium
- es braquidium
- fr brachidium

brakiopodo

Brachiopoda filumean sailkatzen den animalia ornogabe zelomaduna. Alde biko simetria duten kisku biko maskorra du eta gorputzaren aurrealdean lofoforoa. Bizkar-kuskuari brakiala deritzo eta sabel-kuskuari pedunkularra, hurrenez hurren, lofoforoa eusteko erabiltzen den brakidium izeneko egitura karetsua eta pedunkulua kanporatzeko foramena dutelako. Itsastarrak bentonikoak dira, eta ezagunak diren forma guztiek sakonera txikiko urak eta itsasertzak kolonizatzen dituzte. Sailkapena kuskuen arteko artikulazioa posible egiten duten haginak izatean edo ez izatean datzalarik, Inarticulata eta Articulata klaseak bereizten dira. Biak Kanbriarretik gaur egunera arte hedatu dira.

- en brachiopod
- es braquiópodo
- fr brachiopode

► bibalbio

brakisinklinal

- en brachysynclinal
- es braquisinclinal
- fr brachysynclinal

brakitoles

- en brachyfold
- es braquipliegue
- fr brachypli

Bravais sareak

32 talde puntualekin bateragarriak diren 14 sare espazialak. Kristal-sareek materiaren periodizitatea deskribatzen dute. Hiru dimentsiotan periodikoki bana daitezkeen modu posible bakarrak adierazten dituzte puntuek.

- en Bravais lattices
- es redes de Bravais
- fr réseau Bravais

brebikono

- en brevicone
- es brebicono
- fr brevicône

bretxa

2 mm baino gehiagoko partikula angelutsuez osatutako arroka. Partikula hauek (trama) gutxienez arrokaren % 50a osatu behar dute eta matrizez zein zementuz loturik daude. Autore batzuen ustetan, partikula angelutsuen kopurua % 30etik gorakoa izatea edo fabrika pikorrez eutsia izatea nahikoa da.

- en breccia
- es brecha
- fr brèche

➤ konglomeratu; milonita

Kareharrizko **bretxa**. Albiarra. Castro Urdiales (Cantabria). (Motxila eskala gisa).

bretxa bolkaniko

- en volcanic breccia
- es brecha volcánica
- fr brèche volcanique

bretxa sedimentario

- en sedimentary breccia
- es brecha sedimentaria
- fr brèche sédimentaire

bretxa tektoniko

- en tectonic breccia
- es brecha tectónica
- fr brèche tectonique

briofito

- en briophyte
- es briofito
- fr bryophyte

briozoo

Bryozoa filumeko ornogabea. Berezko ezaugarriak hauek dira: hazkuntza koloniala, karezko eskeletoa edo, gutxiagotan, kitinazko mintzekoa, eta U eiteko elikadura-kanala. Goi Kanbriarrean zalantzazkoak badira ere, Ordoviziarretik gaurdaino ezagutzen dira. Briozooen artean ez da agertu Entorpocta subfilumeko fosilik, ez baitute alde gogorrik.

- en briozoa
- es briozoo
- fr briozoaire

brontzita

- en bronzite
- es broncita
- fr bronzite

brookita

- en brookite
- es brookita
- fr brookite

bruzita

Mg(OH)₂. Sistema trigonalean kristaltzen den magnesio-hidroxidoa. Mikek bezala, esfoliazio basal perfektua dute.

- en brucite

es brucita
fr brucite

Bubnoff

en Bubnoff
es Bubnoff
fr Bubnoff

Buerger bektore

en Buerger vector
es vector de Buerger
fr vecteur de Buerger

bulkanita

en volcanite
es vulcanita
fr vulcanite

bultzatze-morrena

en push moraine
es morrena de empuje
fr moraine de poussée

Buntsandstein

en Buntsandstein
es Buntsandstein
fr Buntsandstein

bunodonto

en bunodont
es bunodonto
fr bunodonte

burdina

en iron
es hierro
fr fer

burrow

Izaki batek bete eta mantenduriko sedimentu barneko espazioa.

en burrow
es madriguera
fr terrier

buztin

en clay

es arcilla
fr argile

buztin-hanpadura

en clay swelling
es hinchamiento de arcillas
fr argile gonflement


buztinharri

en claystone
es arcillita
fr argilite

buztin-mineralak

Filosilikatoen familiako mineralen taldea. Buztina osatzen duten aluminio silikato hidratatuz osaturik daude. Lurzoruaren osagai nagusia dira.

en clay minerals
es minerales de la arcilla
fr minérales argileuses



Burrowa: Albiarreko hareaharria Lunada mendatea. Burgos.

bytownita

An₇₀-An₉₀. Plagioklasen segidako minerala.

- en bytownite
- es bytownita
- fr bytownite

➤ **feldespato**

C

C horizonte

en horizon C
es horizonte C
fr horizon C

➤ **lurzoru**

Caerfai

➤ **Kanbriar**

Caradoc

en Caradocian
es Caradociense
fr Caradocien

➤ **Ordoviziar**

cayo

en key
es cayo
fr caye

chabasita

en chabacite
es chabasita
fr chabasite

chamosita

en chamosite

es chamosita
fr chamosite

chernozem

en chernozem; chernozyom
es chernozem
fr chernozem

chevron

en chevron
es chevrón
fr chevron

➤ **toles**

chevron toles

en chevron fold
es pliegue chevrón
fr pli en chevron

Chondrites

en Chondrites
es Chondrites
fr Chondrites

cinder

en cinder
es cinder
fr cinder



D horizonte

en	horizon D
es	horizonte D
fr	horizon D

datazio

Unitate geologiko baten adin absolutu edo erlatiboaren finkapena, metodo paleontologiko, erradiometriko edo magnetikoen bidez egin ohi dena.

en	datation
es	datación
fr	datation

datum

◆ Erreferentziatzko gainazal stratigrafiko isokronoa.

◆ Arroken geruzen gaina edo oina, baita bestelako gainazalak ere, zeinetan egituren ingeradak marrazten diren.

en	datum
es	datum
fr	datum

daya

en	daya
----	------

es	daya
fr	daya

dazita

en	dacite
es	dacita
fr	dacite

Debye-Scherrer kamera

en	Debye-Scherrer camera
es	cámara Debye-Scherrer
fr	chambre Debye-Scherrer

deflazio

en	deflation
es	deflación
fr	déflation

deflazio-kubeta

en	deflation hollow
es	cubeta de deflación
fr	cuvette de déflation

deformazio

Esfortzu tektonikoen aurrean arroka-bolumenek edo arroka-osagaiek jatorrizko egoeratik azkeneko egoera bitartean pairatzen duten orientazio- edo eite-aldaketa. Deforma-

deformazio ardazkide

zioak tolesak, failak edo bestelako egitura geologikoak eratzen ditu. Deformazio terminoa adiera orokorrean erabiltzen da; strain termino ingelesa aldiz, adiera hertsia goan erabiltzen da, objektu- edo arroka-zati baten eite-aldaketa adierazteko, alegia.

- en deformation
- es deformación
- fr déformation

deformazio ardazkide

- en coaxial strain
- es deformación coaxial
- fr déformation coaxiale

deformazio biradun

- en rotational strain
- es deformación rotacional
- fr déformation rotationnelle

deformazio biragabe

- en irrotational strain
- es deformación no rotacional
- fr déformation non rotationnelle

deformazio elastiko

- en elastic deformation
- es deformación elástica
- fr déformation élastique

deformazio ez-ardazkide

- en non-coaxial strain
- es deformación no coaxial
- fr déformation non coaxiale

deformazio finitu

- en finite strain
- es deformación finita
- fr déformation finie

deformazio heterogeneo

- en heterogeneous strain
- es deformación heterogénea
- fr déformation hétérogène

deformazio homogeneo

- en homogeneous strain
- es deformación homogénea
- fr déformation homogène

deformazio infinitesimal

- en infinitesimal strain
- es deformación infinitesimal
- fr déformation infinitésimale

deformazio iraunkor

- en permanent strain
- es deformación permanente
- fr déformation permanente

deformazio plastiko

- en plastic deformation
- es deformación plástica
- fr déformation plastique

deformazio progresibo

- en progressive deformation
- es deformación progresiva
- fr déformation progressive

deformazio-elipsoide

Deformazioak eragindako forma-aldaketak irudikatzeko modu geometriko erraza. Bata bestearekiko perpendikularrak diren elipsoidearen hiru simetri ardatzak, X, Y eta Z alegia, deformazioaren ardatz nagusiak dira. Elipsoidearen X (luzeena) eta Z (motzena) ardatzak, luzatze eta laburtze handiena gertatzen diren norabideak dira, hurrenez hurren. Deformazio-elipsoidearen forma-aldaketak **Flinn diagraman** irudikatzen dira. Egitura geologikoein erlazioan, deformazio-elipsoidearen X ardatza, luzatze-lineazioaren paraleloa da, eta Z-rekiko perpendikularra den XY planoan, foliazioaren paraleloa.

- en strain ellipsoid
- es elipsoide de deformación
- fr ellipsoïde de déformation

deformazio-fase

Orogenietan gertatzen diren eta milioika urteko iraupena duten deformazio-denboraldiak. Deformazio-faseak arroketan sortzen dituzten egitura bereziengatik ezagutzen dira (tolesak, foliazioak, zamalkadurak, urratze-failak, etab.). Deformazio-faseak askoz hobeto definitzen dira beren ezaugarri zinematikoen bidez (luzatze-lineazioa eta zizaila-noranz-

koak), aipatutako egiturez baino. Adibidez, orogenia hertziniarrean, oro har, hiru deformazio-fase definitzen dira.

en	deformation phase
es	fase de deformación
fr	phase de déformation

deformazio-markatzaile

en	strain marker
es	marcador de la deformación
fr	marqueur de la déformation

dejekzio-kono

en	accumulation cone
es	cono de deyección
fr	cône de déjection

dekantazio

en	decantation
es	decantación
fr	décantation

delta

Ibaiek garraiatutako eta beren bokaletan metaturiko sedimentu-gorputza. Delta ibai-bokalean hasi eta itsasoan edo aintziran barneratzen da. Deltak eratu ahal izateko itsasoak edo aintzirak olatu eta korronteen bitartez barreiatzen duen sedimentu kantitateak txikiagoa izan behar du ibaiak bokaleratzen duena baino.

en	delta
es	delta
fr	delta

delta-kame

en	deltaic kame
es	kame deltaico
fr	kame en delta

demiko

Espezie oso bateko populazioa baino txikiagoa den talde banatua. Talde hauetako kideek elkarren artean zorizko ernalketa dute. Demiko hitzak maiz aurrizkia eramaten du banaketaren arrazoia adierazteko; adibidez, topodemiko deritzo eskualde geografiko jakin baten populazioari. Espezie baten populazio osoa eremu geografiko zein ekologiko bakar eta

murritzean soilik agertzen denean, endemiko esaten zaio.

en	demic
es	démico
fr	démique

dendroideo

en	dendroid
es	dendroideo

dentsitate

en	density
es	densidad
fr	densité

denudazio

en	denudation
es	denudación
fr	denudation

denudazio formak

en	denudation forms
es	formas de denudación
fr	formes de dénudation

desagregazio

en	disaggregation
es	desagregación
fr	désagrégation

desbeiratze

en	devitrification
es	desvitrificación
fr	dévitrication

desberdintze magmatiko

Hasierako magma komun bat kimikoki eta mineralogikoki desberdinak diren zatietan banatzea dakarren prozesua. Zati bakoitzak bere aldetik eboluzionatu eta arroka mota bat baino gehiago era ditzake. Prozesu honetan kristaltze frakzionatua, asimilazioa eta magmen nahasketa prozesuak sar daitezke. Horrela eratzen diren arroka magmatikoak era askotakoak izango dira baina elkarren artean ezaugarri komun batzuk dituztelarik, segida magmatikoak edo segida igneoak osatzen dituzte.

en	magmatic differentiation
----	--------------------------

- es diferenciación magmática
fr différenciation magmatique

desbideratze-esfortzu

- en deviatoric stress
es esfuerzo desviatorio
fr contrainte déviatorique

desegite **higatze****desertifikazio**

- en desertification
es desertificación; desertización
fr désertification

desintegrazio

SIN: birrintze

- en disintegration
es desintegración
fr désintégration

desintegrazio-periodo

- en decay periodity
es periodo de desintegración
fr désintégration période

deskaltzifikazio

- en decalcification
es descalcificación
fr décalcification

deskarga

- en backstripping
es descarga
fr backstripping

deskonposizio

- en rotting
es descomposición
fr décomposition

desmodonta

- en desmodont
es desmodonta
fr desmodonte

desnahaste

- en unmixing
es desmezcla
fr exsolution

desordena

- en disorder
es desorden
fr désordre

destrogiro

- en dextrogiro
es dextrógiro
fr dextrogyre

detektore

- en detector
es detector
fr détecteur

detritiko

- en detrital
es detrítico
fr détritique

detritujale

- en detritivore
es detritívoro
fr détritivore

deuteriko

- en deuterio
es deuterico
fr deutérique

Devoniar

Era (eta eratema) Paleozoikoaren periodoa (eta sistema), Siluriarraren ondorengoa eta Karboniferoaren aurrekoa, duela 408 eta 362 Ma artekoa. Hiru epoka (eta serie) ditu bere baitan, Devoniar Goiztiarra, Ertaina eta Berantiarra.

- en Devonian
es Devónico
fr Dévonien

diabasa

- en diabase

es diabasa
fr diabase

diagenesi

en diagenesis
es diagénesis
fr diagenèse

diaklasa

en joint
es diaclasa
fr diaclase

diaklasa diagonal

en diagonal joint
es diaclasa diagonal
fr diaclase diagonal

diamante

C. Elementu natiboa, sistema kubikoan kristaltzen dena. Mineralik gogorrena da ($H=10$) eta kolore argiak izaten ditu; kolore biziak oso arraroak dira. Errefrakzio-indize altuak eta argiaren sakabanatzeak kolore askotako distira bereizgarriak sorrarazten dituzte diamante landuetan. Harribitxi preziatuena izateaz gain, kalitate baxukoak industrian erabiltzen dira.

en diamond
es diamante
fr diamant

diapiro

Inguruko materialekiko duen dentsitate txikiaren ondorioz lurrazalerantz igotzen den eite esferikoa edo eliptikoa, edo sakonean finkatuta dagoen tanta itxurako masa. Diapiroak solido edo likidoak izan daitezke. Oso ezagunak dira Triasiko garaiko Keuper fazieko igeltsudun buztin eta margek eratzen dituzten diapiroak.

en diapiro
es diapiro
fr diapir

diapsido

en diapsid
es diápsido
fr diapside

diastema

Sedimentazio-eten laburra, tartean higadurarik izan ez duena. Haren denbora-iraupena hiatoarena baino laburragoa izanik, koantifikatzea ezinezkoa izaten da maiz.

en diastem; diasthème
es diastema
fr diastème; diasthème

diastrofismo

en diastrophism
es diastrofismo
fr diastrophisme


diatexita

en diatexite
es diatexita
fr diatexite

diatomeo

Alga zelulabakar itsastar eta lakutarra, sarritan apaingarri finak azaltzen dituzten bi kuskuz osatutako silizezko oskola (frustrula) duena. Ugalketa asexuala (zelula-zatiketaren bidezkoa) edo sexuala (gametoen bidezkoa) izan dezakete. Zenbait arroka sedimentarioren ia osagai bakarrak dira. Gehienez tamaina 20 eta 200 μm artean dago, baina handienak 1 mm-ra iristen dira. Fossil-erregistroan Jurasikotik gaur egun arte hedatzen dira.

en diatom
es diatomea
fr diatomée



Diatomeo: mikroskopio elektronikoz egindako argazkia.

diatomita

Erabat diatomeoz osatutako silizezko arroka sedimentario argia, arina eta porotsua. Urratzaile edo zurgatzaile gisa erabiltzen da, adibidez dinamita egiteko.

- en diatomite
- es diatomita
- fr diatomite

difraktograma

- en diffraction pattern
- es difractograma
- fr diffractogramme

difraktometro

- en diffractometer
- es difractorómetro
- fr diffractomètre

difrakzio

- en diffraction
- es difracción
- fr diffraction

dike

- en dyke
- es dique
- fr dyke

dike-sare

- en dyke swarm
- es red de diques
- fr réseau des dykes

dimorfismo

Espezie bereko animalia edo landareek ezaugarri morfologiko ezberdinak izatea, sexuari (dimorfismo sexuala), ugalketa-sistemari (belaunaldien txandaketak) edota urtaroei (dimorfismo urtarotarra) dagokiena.


- en dimorphism
- es dimorfismo
- fr dimorphisme

dinoflagelatu



Dinoflagelatuak (grekotik sortua, dinos = errotazioa eta flagellum = zigorra), edo maiz alga dianofizeo esan ohi zaion plankton-taldea.

Izaki zelulabakarrak dira. Morfologia mota asko daude talde honen barruan, baina, hala ere, dituzten ezaugarri morfologiko zein fisiologiko komunak direla medio, dinoflagelatuak talde zabal bakarrean elkar daitezke. Dinoflagelatu gehienek ezaugarriak dira oso nukleo handia, kromosomak beti ikusgai egotea, kloroplasto hori nahiz marroiak, eta bi flagelo. Bestalde, dinoflagelatu bizi-zikloak hainbat fase izan ditzake; teka eta kistea sortzen dituztenak dira fase nagusiak. Tekak, zelulosazkoa denez, ez da inolara ere iraunkorra eta nekez fosiltzen da; kistea, aldiz, kimikoki oso egonkorra da eta erraz irauten du milioika urtetan arroka sedimentarioetan bere izaera organikoa gordeta. Dinospolina izenez ezagutzen den konposatu makromolekular organikoaz osaturik dago kistea. Dinospolina esporea eta polen-aleen konposatu kimikoaren, hots esporopoleninaren, antzekoa da eta, azken hauetan gertatzen den bezala, dinospolinari esker kistek ere oso egonkorak dira. Dinospolina eta esporopolenina oso antzekoak badira ere, erantzun desberdina dute tindatzaileren aurrean eta, bestalde, fluoreszentzia-ezaugarri desberdinak dituzte. Tekak ez da ia inoiz fosil aurkitzen, bai ordea kistea. Azken honen ezaugarri taxonomikoen artean, honako hauek daude: arkeopiloa, operkuluma, parazinguluma, parasulkusa, paraplakak, epikistea eta hipokistea.

- en dinoflagellate
- es dinoflagelado
- fr dinoflagellé



Dinoflagelatu: mikroskopio elektronikoz egindako argazkia.



(1) dinoflagelatuena kistearen eta tekaren terminologia; (2) dinoflagelatuena bizi-zikloa.

dinosauru

Triasikotik Kretazeora bitartean bizi izan ziren narrasti fosilen izen generikoa. Gerriaren arabera Saurischia eta Ornithischia ordenak bereizten dira. Txikiak zein erraldoiak oso ugariak izan ziren; lehorreko txoko guztietara moldatu ziren.

en	dinosaur
es	dinosaurio
fr	dinosaurien

diopsido

$\text{CaMgSi}_2\text{O}_6$. Piroxenoen taldeko inosilikato monoklinikoa.

en	diopside
es	diopsido
fr	diopside

diorita

en	diorite
es	diorita
fr	diorite

diorita feldespatoiedun

SIN: diorita foiedun

en	foid-bearing diorite
es	diorita con feldespatoides
fr	diorite feldspathoïdifière

diorita foiedun

 **diorita feldespatoiedun**

dipolo

en	dipole
es	dipolo
fr	dipole

disepimentu

en	dissepiment
es	disepimento
fr	dissépiment

disgregazio

en	separation
es	disgregación
fr	désagrégation

diskonformitate

Etengune estratigrafiko mota. Etengune-gainazala irregularra (higadurazkoa) du eta etengunearen azpiko eta gaineko geruzak elkarrekiko paraleloak dira.

en	disconformity
es	disconformidad
fr	disconformité

diskordante

en	discordant
es	discordante
fr	discordant

diskordantzia

Etengune estratigrafiko mota. Etengune-gainazala higakorra da eta azpiko eta gaineko geruzek angelua osatzen dute. Diskordantziek fase tektonikoa adierazten dutenez, azpiko geruzak deformatuta azalduko dira (toles eta failak).

en	angular unconformity
es	discordancia
fr	discordance

diskordantzia progresibo

en	progressive angular unconformity
es	discordancia progresiva
fr	discordance progressive


diskordantzia sintektoniko

en	syntectonic angular unconformity
es	discordancia sintectónica
fr	discordance syntectonique

dislokazio

Zuzen baten inguruan gertatzen den akats-metatzea, non atomo-planoa kristal barnean "gelditzen" den "eskegitako lotura-lerroa" eratzen den. Dislokazio bati lotuta dauden deformazioaren norabidea eta lekualdatzea Buerger bektorearen (b) bidez adierazten dira. Buerger bektorea (b) eta dislokazio-lerroa (L) paraleloak direnean, ertz-dislokazio (i) deritzo eta perpendikularrak direnean, dislokazio helikoidal (ii).

en	dislocation
es	dislocación
fr	dislocation



Bi dislokazio-motak: (i) dislokazio helikoidala eta (ii) ertz-dislokazioa.

dislokazio helikoidal

- en screw dislocation
- es dislocación helicoidal
- fr dislocation coin

➤ dislokazio

disodonta

- en disodont
- es disodonta
- es disodonte

disolbagarri

- en soluble
- es soluble
- fr soluble

disolbagarritasun

- en solubility
- es solubilidad
- fr solubilité

disoluzio

- en solution
- es disolución
- fr dissolution

distena

Termino zaharkitua. Ikus **zianita**.

- en disthene
- es distena
- fr disthène

distira

Argia islatzean mineralek erakusten duten itxura. Horren arabera, mineralak metalikoak (adibidez, pirita: FeS_2) edo ez-metalikoak (adibidez, kuartzoa: SiO_2) dira.

- en brilliancy; luster
- es brillo
- fr brilliance

distira beirakara

- en vitric brilliancy
- es brillo vítreo
- fr vitreous brilliance

diteka

- en ditheca
- es diteca
- es dithèque

Dogger

- en Dogger
- es Dogger
- fr Dogger

➤ Jurasiko

doiketa

- en afinement
- es afinamiento
- fr affinement

doitze

- en afinement

es afinamiento
fr affinement

dolina

en doline; sinkhole
es dolina
fr doline

> karst**dolomia**

en dolomite; dolostone
es dolomía
fr dolomie

dolomita

CaMg(CO₃)₂. Sistema trigonalean kristaltzen den karbonatoa, ankeritaren isomorfoa dena.

en dolomite
es dolomita
fr dolomite

doming

en doming
es doming
fr doming

domo

en dome
es domo
fr dôme

domo anatektiko

en anatectic dome
es domo anatóctico
fr dôme anatectique

domo bolkaniko

en volcanic dome
es domo volcánico
fr dôme volcanique

domo migmatitiko

en migmatitic dome
es domo migmatítico
fr dôme migmatitique

domo-karst

en dome karst

es karst en domos
fr karst en dôme

dorre

en tower
es torre
fr tour

dorre-karst

en tower karst
es karst en torres
fr karst en tour

dorsal bolkaniko

en volcanic ridge
es dorsal volcánica
fr dorsale volcanique

draa

en draa
es draa
fr draa

drainaje**☞ drainatze****drainaje-sare****☞ drainatze-sare****drainatze**

SIN: drainaje

Inguru batean urak azaleko edo lurpeko bideak hartzea. Hortaz, inguru bateko urak bideratzen diren azaleko ibai eta aintziren multzoari drainatze-sarea (edo drainatze-sistema) deritzo eta ibai batek drainatzen duen inguruari, drainatze-ingurua.

en drainage
es avenamiento; drenaje
fr drainage

drainatze-sare

SIN: drainaje-sare

en drainage net
es red de drenaje
fr réseau de drainage

> drainatze

drumlin

en drumlin
es drumlin
fr drumlin

drusa

en druse
es drusa
fr druse

duna

en dune
es duna
fr dune

duna igokari

en climbing dune
es duna remontante
fr dune ascendante

duna paraboliko

en parabolic dune
es duna parabólica
fr dune parabolique

duna-lerro

en dune ridge
es cordón de duna
fr cordon de dune

Dyfed

➤ **Ordoviziar**



ebaki

en section
es sección
fr section

ebakidura

en section
es sección
fr section

ebakidura busti

en wet section
es sección mojada
fr section mouillée

ebakidura kondentsatu

en condensed section
es sección condensada
fr section condensé

ebakidura-lineazio

en intersection lineation
es lineación de intersección
fr linéation d'intersection

ebakigarri

en sectile
es séctil

fr sectile

► **zailtasun**

ebaporita

en evaporite
es evaporita
fr évaporite

ebazpen

en solution
es resolución
fr résolution

eboluto

en evolute
es evolutio
fr évolute

eboluzio

Bizia Lurrean bizidun bakar batetik, edo gutxi batzuetatik, abiatuta gradualki garatu dela dioen teoria. Bizidunak ingurunera moldatzearekin batera, hasierako bizidun bakunetatik ondorengo izaki konplexuetara heldu gara. Beraz, arbasoetatik ondorengoetara etengabeko aldaketa graduala dela eta, aldaketa sakonak gertatzen dira denbora geologikoan zehar.

en evolution

es evolución
fr évolution

eboluzio filetiko

en phyletic evolution
es evolución filética
fr évolution phylétique

edafologia

Lurzoruen sorrera, osaera eta dinamika aztergai dituen zientzia.

en edaphology
es edafología
fr pédologie

efluente

en effluent
es efluente
fr effluent

efusibo

en effusive
es efusivo
fr effusif

egitura

en structure
es estructura
fr structure

egitura forma

en structural form
es forma estructural
fr forme structurale

egitura magnetiko

en magnetic structure
es estructura magnética
fr structure magnétique

egitura modulatu

en modulated structure
es estructura modulada
fr structure modulée

egitura planar

en planar structure

es estructura planar
fr plan structure

egitura-eremu

en structure domain
es dominio estructural
fr domaine de structure

egitura-faktore

en structure factor
es factor de estructura
fr facteur de structure

egitura-maila

SIN: maila estruktural

en structural level
es nivel estructural
fr niveau structural

egitura-plataforma

en structural platform
es plataforma estructural
fr plate-forme structurale

egoera magmatikoko deformazio

en magmatic-state deformation
es deformación en estado magmático
fr déformation à l'état magmatique

egoera solidoko deformazio

en solid-state deformation
es deformación en estado sólido
fr déformation à l'état solide

egokitze isostatiko

en isostatic adjust
es ajuste isostático
fr ajustage isostatique

egungo fronte

en actual front
es frente actual
fr front actuel

eguraldi oneko olatu-oin

en fairweather wave base
es nivel de base de oleaje de buen tiempo
fr niveau de base de vague de beau temps

eguzki-orban

- en sunspot
- es mancha solar
- fr tache solaire

eguzki-sistema

- en solar system
- es sistema solar
- fr système solaire

ehundura

Arroken itxura edo ezaugarri fisiko orokorrak, partikula edo kristalen itxura geometrikoa eta elkarren arteko erlazioa barne dituela; esate baterako, arroka sedimentario baten osagaien tamaina, forma eta horien antolamendua, edo arroka igneoen osagaien kristalinitatea, pikortasuna eta fabrika. Esku-lagin edo mikroskopio optikoaren eskalan behatutako ezugarriek definitzen dute ehundura. **Egitura** terminoa arrokarren eskala handiagoko ezaugarrietarako erabiltzen da. Bi termino hauek ez lirateke sinonimo gisa erabili beharko, ehundura-ezaugarri batzuk egitura-ezaugarri handien antzekoak edo paraleloak badira ere. Nahastea egon daiteke, beste hizkuntza batzuetan (frantsesez, esate baterako) alderantzizko esanahia baitute termino hauek.

- en texture
- es textura
- fr texture

ehundura afanitiko

- en aphanitic texture
- es textura afanítica
- fr texture aphanitique

ehundura azpiofitiko

- en subpphitic texture
- es textura subofítica
- fr texture subophitique

ehundura bitrofiriko

- en vitrophyric texture
- es textura vitrofídica
- fr texture vitrophydique

ehundura dendritiko

- en dendritic texture

- es textura dendrítica
- fr texture dendritique

ehundura diabasiko

- en diabasic texture
- es textura diabásica
- fr texture diabasique

ehundura esferulitiko

- en spherulitic texture
- es textura esferulítica
- fr texture sphérolitique

ehundura eskeletiko

- en skeletal texture
- es textura esquelética
- fr texture squelettique

ehundura feltsitiko

- en felsitic texture
- es textura felsítica
- fr texture felsitique

ehundura grafiko

- en graphic texture
- es textura gráfica
- fr texture graphique

ehundura granoblastiko

- en granoblastic texture
- es textura granoblástica
- fr texture granoblastique

ehundura granoblastiko poligonal

- en granoblastic-polygonal texture
- es textura granoblástica poligonal
- fr texture granoblastique polygonale

ehundura granolepidoblastiko

- en granolepidoblastic texture
- es textura granolepidoblástica
- fr texture granolépidoblastique

ehundura granonematoblastiko

- en granonematoblastic texture
- es textura granonematoblástica
- fr texture granonematoblastique

ehundura granoporfiroblastiko

- en granoporphyroblastic texture
- es textura granoporfidoblástica
- fr texture granoporphyroblastique

ehundura hialokristalino bitrofiriko

- en vitrophidic hyalocrystalline texture
- es textura hialocristalina vitrofidica
- fr texture hyalocrystalline vitrophydique

ehundura hialokristalino esferulitiko

- en spherulitic hyalocrystalline texture
- es textura hialocristalina esferulítica
- fr texture hyalocrystalline sphérolitique

ehundura hialokristalino mikrolitiko

- en microlitic hyalocrystalline texture
- es textura hialocristalina microlítica
- fr texture hyalocrystalline microlitique

ehundura hialokristalino mikroporfiriko

- en microporphiritic hyalocrystalline texture
- es textura hialocristalina mikroporfidica
- fr texture hyalocrystalline microporphyrrique

ehundura holohialino bakuolar

- en holohyaline vesicular texture
ortoanfibol

en orthoanphibol
es ortoanfibol
fr orthoanphibol

ortogneis

en orthogneiss
es ortogneis; ortoneis
fr ortho gneis

ortokimiko

Sedimentazio-arroan metatze bitartean edo ondoren gertaturiko hauspeatze kimikoaren eta biogenikoaren ondorioz eratutako kalzio karbonatoa. Kristalen tamainaren arabera bi mota bereizten dira: mikrita (<4 µm) eta esparita (>10 µm).

en ortochem
es ortoquímico
fr orthochème

ortoklasa

SIN: ortosa

$KAlSi_3O_8$. Feldespato potasikoaren polimorfoa.

en orthoclase
es ortoclase; ortosa
fr orthoclase; orthose

➤ feldespato

ortoklinal

en orthoclines
es ortoclinal
fr orthoclinal

ortokono

en orthocone
es ortocono
fr orthocone

ortopiroxeno

Piroxeno ortorronbikoa.

en orthopyroxene
es ortopiroxeno
fr orthopyroxène

➤ piroxeno

ortorronbiko

en orthorhombic
es ortorrómbico
fr orthorhombique

ortosa

☞ ortoklasa

ortosilikato

en orthosilicate
es ortosilicato
fr orthosilicate

ortoskopiko

en orthoscopic
es ortoscópico
fr orthoscopique

ortozeratoideoak

en orthoceratite
es ortoceratoideos
fr orthoceratitées

osaera kimiko

☞ konposizio

osagarri

en accessory
es accesorio
fr accessoire

oskol

SIN: krosko (dortokak)

en shell
es caparazón
fr caparace

oskulu

en	osculum
es	ósculo
fr	osculum

ostalari

Beste arroka baten edo mineral-hobi baten ostalari modura jokatzeko duen arroka-gorputza. Arroka intrusiboak edo filoiak kokatzen diren materialei deritze.

en	host
es	encajante
fr	encaissante

osteiktio

en	osteichtyes
es	osteictio
fr	ostéichtyens

osteologia

en	osteology
es	osteología
fr	ostéologie

osteometria

en	osteometry
es	osteometría
fr	ostéométrie

ostrakodermatuak

en	ostracodermi
es	ostracodermos
fr	ostracodermes

ostrakodermo

en	ostracoderm
es	ostracodermo
fr	ostracoderme

ostrakodita

en	ostracodite
es	ostracodita
fr	ostracodite

ostrakodo

Kaltzio karbonatozko bi kuskuko dituen tamaina milimetrikoko mikrokrustazeoa (Crustacea, Entomostraca). Ostrakodoen kuskuk

oso ugariak dira arroka sedimentarioetan Behe Kanbriarretik hasita gaur egun arte. Edozein ingurune urtarretan bizi daitezke, bai itsas uretan, bai ur kontinentaletan. Geologoek berreraiketa paleogeografikoak eta paleobiogeografikoak egiteko erabiltzen dituzte. 47.000 ostrakodo-espezie baino gehiago ezagutzen dira.

en	ostracod
es	ostrácodo
fr	ostracode

ostreido

en	ostreid
es	ostreido
fr	ostreidé

oszilazio-kizkur

en	oscillation ripple
es	rizadura de oscilación
fr	ride d'oscillation

oszilazio-olatu

en	oscillatory wave
es	ola de oscilación
fr	vague d'oscillation

otolito

en	otolith
es	otolito
fr	otolite

oued

en	oued
es	oued
fr	oued

oxbow

en	oxbow
es	oxbow
fr	oxbow

Oxfordiar

en	Oxfordiar
es	Oxfordiense
fr	Oxfordien

oxidatzaile

en	oxidizer
----	----------

oxidazio

es	oxidante
fr	oxydante

oxidazio

en	oxidation
es	oxidación
fr	oxidation

oxido

Oxigenoz eta metal batez edo gehiagoz osatutako mineralak. Hidroxidoekin batera mineral-klase bat osatzen dute. Bi taldetan sailkatu dira:

Oxido bakunak, metal bakar batez osatuak. Oxigenoaren (O) eta metalaren (X) arteko erlazioaren arabera, hurrengo mota hauek bereizten dira: XO , X_2O , X_2O_3 (hematitearen taldea) eta XO_2 (SiO_2 izan ezik, rutiloaren taldea osatzen dute).

Oxido anizkoitzak, metal bat baino gehiago dutenak (X, Y): XY_2O_4 (espinelaren taldea).

en	oxide
es	óxido
fr	oxyde

oxisol

en	oxisol
es	oxisol
fr	oxisol

ozeanizazio

en	oceanization
es	oceanización
fr	océanisation

ozeano

en	ocean
es	océano
fr	océan

ozeanoaren erdiko gandor

en	mid-ocean ridge
es	dorsal medio-océánica
fr	dorsale médio-océanique

ozeano-fosa

en	trench
es	fosa oceánica
fr	fosse abyssale

ozeano-gandor

Itsaso azpiko mendikatea, non lurrazal ozeanikoa eratzen den. Gandorra ozeanoaren erdikoa dela esaten da rift prozesuaren bitartez kontinenteen apurketagatik eratzen denean (Adib. Ozeano Atlantikoaren erdiko gandorra).

en	ocean ridge
es	dorsal oceánica
fr	dorsale océanique

ozelar

en	ocellar
es	ocelar
fr	ocellaire

ozelo

en	ocellus
es	ocelo
fr	ocelle

ozocerita

en	ozocerite
es	ozocerita
fr	ozocerite

P

P uhinak

- en P waves
- es ondas P
- fr P ondes

➤ **uhin sismiko**

packstone

- en packstone
- es packstone
- fr packstone

padura

- en marsh; swamp
- es marisma
- fr marais

pahoehoe

- en pahoehoe
- es pahoehoe
- fr pahoehoe

➤ **laba**

paisaje

- en landscape
- es paisaje
- fr paysage

paketatze

Kristal-sareetako atomo edo ioien antolamendua. Paketatze trinkoan (kubiko edo hexagonal) atomo edo ioi bakoitzaren inguruan beste hamabi atomo edo ioi daude.

- en packing
- es empaquetamiento
- fr empilement

pakiodonta

- en pachyodont
- es paquiodonta
- fr pachyodonte

palagonita

- en palagonite
- es palagonita
- fr palagonite

paleoantropologia

Gizakien fosilak aztertzen dituen antropologiaren eta paleontologiaren adarra.

- en paleoanthropology
- es paleoantropología
- fr paléanthropologie

paleobiostratigrafia

- en paleobiostratigraphy
- es paleobiostratigrafía
- fr paléobiostratigraphie

paleobiogeografia

- en paleobiogeography
- es paleobiogeografía
- fr paléobiogéographie

paleobotanika

Iragan geologikoko floraren ikerketa. Paleofitologia zein fitopaleontologia ere esaten zaio.

- en paleobotany
- es paleobotánica
- fr paléobotanique

Paleodyction

- en Paleodyction
- es Paleodyction
- fr Paleodyction

paleoekologia

- en paleoecology
- es paleoecología
- fr paléoécologie

paleoerliebe

- en paleorelief
- es paleorelieve
- fr paléorelief

paleoesfortzu

- en paleostress
- es paleoesfuerzo
- fr paléocontrainte

paleoforma

- en paleoform
- es paleoform a
- fr paléoforme

Paleogeno

Zenozoiko eraren (eta eratemaren) periodo (eta sistema) zaharrena, Kretazeoaren ondorengo eta Neogenoaren aurrekoa, duela 65 Ma eta 23.3 Ma artekoa. Hiru epoka (eta serie) ditu bere baitan: Paleozenoa, Eozenoa eta Oligozenoa.

- en Paleogene
- es Paleogeno
- fr Paléogène

paleogeografia

- en paleogeography
- es paleogeografía
- fr paléogéographie

> geologia**paleoibilgu**

- en paleoriver bed
- es paleocauce
- fr paléolit

paleoingurune

- en paleoenvironment
- es paleoambiente
- fr paléoenvironnement

paleokarst

- en paleokarst
- es paleokarst
- fr paléokarst

paleoklima

- en paleoclimate
- es paleoclima
- fr paléoclimat

paleoklimatologia

- en paleoclimatology
- es paleoclimatología
- fr paléoclimatologie

paleokorronte

- en paleocurrent
- es paleocorriente
- fr paléocourrant

Paleolitiko

- en Paleolithic
- es Paleolítico
- fr Paléolithique

paleolurzoru

- en paleosoil
- es paleosuelo
- fr paléosol

paleomagnetismo

- en paleomagnetism
- es paleomagnetismo
- fr paléomagnétisme

paleontologia

Fosilen bidez antzinako bizidunak eta biosferan denboran zehar gertatutako aldaketa orokorrak ikertzen dituen geologiaren esparrua.

- en paleontology
- es paleontología
- fr paléontologie

➤ **geologia****paleopalinologia**

- en paleopalynology
- es paleopalinología
- fr paléopalynologie

➤ **palinologia****paleosoma**

- en paleosome
- es paleosoma
- fr paléosome

paleotenperatura

- en paleotemperature
- es paleotemperatura
- fr paléotempérature

paleoubide

- en paleochannel
- es paleocanal
- fr paléochenal

Paleozeno

- en Paleocene
- es Paleoceno
- fr Paleocène

➤ **Paleogeno****Paleozoiko**

Fanerozoiko eonaren (eta eontemaren) lehenengo era (eta eratema), Proterozoikoaren Siniarraren ondorengoa eta Mesozoikoaren aurrekoa, duela 570 Ma inguru hasi eta duela 245 Ma inguru arte luzatu zena. Sei periodo (eta sistema) ditu bere baitan: Kanbriarra, Ordovizia-

rra, Siluriarra, Devoniarra, Karboniferoa eta Permiarra. Paleozoikoko fosilen artean ornogabeak nagusi direlarik, berauetako asko era honen amaierako suntsipenean desagertu ziren, esate baterako trilobiteak eta graptoliteak. Paleozoikoan zehar arrainen eboluzioa gertatu zen eta lehenengo anfibioak azaldu ziren. Hiru orogenia nagusi gertatu ziren: Asintiarra, Kaledoniarra eta Hertziniarra edo Variskarra. Euskal Herrian Paleozoikoko arrokak Pirinio aldean azaleratzen dira, Gipuzkoako ipar-ekialdean, Nafarroako iparraldean eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako hegoaldean.

- en Paleozoic
- es Paleozoico
- fr Paléozoïque

palinologia

Mikroelementu organiko edo palinomorfoen azterketaz arduratzen den zientzia. Palinomorfoen osaera organikoa da hein handi batean eta hauen osagai nagusiak esporopolenina, kitina edo pseudokitina, dinosporina eta zelulosa dira. Palinomorfoak itsastarrak zein lehortarrak izan daitezke eta, beraz, akritarkoak, alga koloniakoi mikroskopikoak, kitinoozoak, dinoflagelatuak kisteak, eskolekodontoak, esporak eta polen-aleak palinomorfotzat har daitezke. Paleopalinologiak palinomorfo fosilak aztertzen ditu.

- en palynology
- es palinología
- fr palynologie

palinomorfo

- en palynomorphs
- es palinomorfo
- fr palynomorphe

palinspastiko

- en palinspastic
- es palinspástico
- fr palinspastique

pallasita

- en pallasite
- es pallasita
- fr pallasite

palsa

en	palsa
es	palsa
fr	palsa

Pan-Afrikar

en	Pan-African
es	Pan-Africana
fr	Pan-Africaine

pandemiko

◆ Eskualde geografiko zabal batean populazio gehien gain eragiten duenari dagokiona.

◆ Oso zabalduta dagoen populazioari dagokiona.

en	pandemic
es	pandémico
fr	pandémique

Pangea

Duela 300 Ma inguru (Paleozoiko berantiarrean) eratutako superkontinentea. Garai hartan lurrazal kontinental gehiena Pangean pilaturik zegoen. Superkontinentea inguratzen zuen ozeanoari Panthalassa deritzo. Harrezkero, Pangea-ko zatiak, kontinenteen jitoa dela medio, bananduz eta aldenuz joan dira, lehenengo bitan zatituz (**Laurasia** eta **Gondwana**), Tethys itsasoaren sorreraren bitartez gaur eguneko egoerara iritsi arte.

en	Pangea
es	Pangea
fr	Pangee

panidiomorfo

en	panidiomorphic
es	panidiomorfo
fr	panidiomorphe

Panthalassa

Paleozoiko berantiarrean (300 Ma inguru) Pangea inguratzen zuen ozeanoa.

en	Panthalassa
es	Panthalassa
fr	Panthalassa

paradigma

en	paradigm
es	paradigma
fr	paradigme

paraeratorri

en	paraderived
es	paraderivado
fr	paradérivé

parafiletiko

Jatorrizko espezie batetik eratorritako ondorengoetako batzuk (ez guztiak) biltzen dituen taxoia.

en	paraphyletic
es	parafilético
fr	paraphyletique

paragenesi

◆ Arroka sedimentarioetan, igneoetan eta zenbait meatan azaltzen diren, eta prozesu geologikoen eta geokimikoen ondoriozkoak izanik jatorri berbera duten mineralen multzoa.

◆ Arroka metamorfikoen kasuan, presio (P) eta tenperaturaren (T) baldintza jakinetan egonkorak diren mineral-elkartek.

en	paragenese
es	paragénesis
fr	paragenèse

► metamorfismo**paragneis**

en	paragneiss
es	paragneis
fr	paragneiss

paragonita

en	paragonite
es	paragonita
fr	paragonite

parakonformitate

Etengune mota bat, etengune-gainazala laua duena eta azpiko eta gaineko geruzekiko paraleloa dena. Parakonformitateak sedimentaziorik ezagatik eraten dira.

en	paraconformity
----	----------------

es paraconformidad
fr paraconformité

paraliko

en paralic
es parállico
fr paralique

paramagnetismo

en paramagnetism
es paramagnetismo
fr paramagnétisme

parametro

en parameter
es parámetro
fr paramètre

parasegida

en parasequence
es parasecuencia
fr paraséquence

paratipo

Espezie baten deskribapenean holotipoa-
rekin batera deskribatutako alea.

en paratype
es paratipo
fr paratype

parautoktono

en paraautochthonous
es parautóctono
fr parautochtone

pargasita

en paragasite
es pargasita
fr paragasite

partikula

en particle
es partícula
fr particule

partsimonia-printzipio

Pauling-en bosgarren araua: kristal-egitu-
ran, posizio atomikoen kopurua ahal den txi-

kien izan behar du.

en parsimony principle
es principio de parsimonia
fr principe de parsimonie

Pasadenar

en Pasadenian
es Pasadeniense
fr Pasadenien

patina

en patina
es pátina
fr patine

patroi

en patterns
es patrón
fr pattern

Patterson metodo

en Patterson method
es método de Patterson
fr méthode de Patterson

Pauling arauak

en Pauling laws
es reglas de Pauling
fr règles de Pauling

pedilautada

en pediplain
es pedillanura
fr pédiplaine

pedimentu

en pediment
es pedimento
fr pediment

pedioi

en pedion
es pedión
fr pedion

pedizelario

en pedicellaria
es pedicelario
fr pédicellaire

pedogenesi

en	pedogenesis
es	pedogénesis
fr	pedogénèse

pedunkulu

en	peduncle
es	pedúnculo
fr	pédoncule

pegmatita

en	pegmatite
es	pegmatita
fr	pegmatite

pekblenda

UO₂. Uraninitaren aldaera masiboa eta botroidala.

en	pitchblenda
es	pechblenda
fr	pechblende

pektinido

en	pectinid
es	pectínido
fr	pectinide

pelagiko

◆ Itsaso eta aintziretan aktiboki (nektona) edo pasiboki (planktona) igerian bizi diren izaikiei dagokiena.

◆ Sedimentu terrigenoen iturrietatik nabarmenki libre geratzen den itsaso zabaleko eremua eta, zabalduraz, bertan metatzen den sedimentua. Gehienetan kontinenteetatik urrun gelditzen den itsas eskualdea da.

en	pelagic
es	pelágico
fr	pélagique

pelesparita

en	pelesparite
es	pelesparita
fr	pelesparite

peletar

en	pelean
----	--------

es	peleano
fr	peleen

pelezipodo

en	pelecypod
es	pelecípodo
fr	pélécypode

pelita

Batez ere buztin-mineralez (% 30-75) osatutako oso pikor txikiko arroka sedimentarioa (<10 µm).

en	pelite
es	pelita
fr	pelite

pellet

0.2 mm baino diametro txikiagoa duen mikrita kriptokristaltinozko partikula obalatu (normalean 0.04 eta 0.1 mm arteko diametroa du). Ez du barne-egiturarik eta jatorri fekala duenez, materia organikotan oso aberatsa da. Pelmikrita eta pelesparita motako kareharrietan osagai nagusia da.

en	pellet
es	pellet
fr	boulette

pelmikrita

en	pelmicrite
es	pelmicrita
fr	pelmicrite

peloide

en	peloid
es	peloide
fr	peloid

Pendleiar

en	Pendlenian
es	Pendlendiense
fr	Pendlenien

peneplanazio

en	peneplanation
es	peneplanación
fr	peneplanation

penetrometro

en penetrometer
 es penetrómetro
 fr pénétromètre

peniforme

en penishape
 es peniforme
 fr peniforme

penilautada

en peniplain
 es penillanura
 fr peniplaine

penintsula

en peninsula
 es península
 fr péninsule

Penniar

en Pennian
 es Pénnico
 fr Pennien

Pennsylvaniar

en Pennsylvanian
 es Pennsylvaniense
 fr Pensilvanien

➤ Karbonifero**peralkalino**

en peralkaline
 es peralcalina
 fr hyperalkaline

perforazio**☞ zulaketa****pergelisol**

en pergelisol
 es pergelisol
 fr pergélisol

periantiklinal

en perianticline
 es perianticlinal
 fr périantoclinal

peridotita

en peridotite
 es peridotita
 fr peridotite

perigeo

en perigee
 es perigeo
 fr périgée

periglaziar

en periglacial
 es periglaziar
 fr périglaciaire

perihelio

en perihelion
 es perihelio
 fr périhé lion

periklasa

en periclase
 es periclasa
 fr périclasa

periklina

en pericline
 es periclina
 fr périclina

periklinal

en periclinal
 es periclinal
 fr périclinal

perikontinental

en pericontinental
 es pericontinental
 fr péricontinentale

perimetro busti

en wetted perimeter
 es perímetro mojado
 fr périmètre mouillé

periodizitate**☞ aldizkakotasun**

periodo

Eskala geokronologikoko denbora-unitatea, multzokatutako zenbait epokaz eratuta dagoena. Multzokatutako zenbait periodok erak osatzen dituzte. Periodoaren baliokide kronoestratigrafikoa sistema da, denbora-tarte honetan eratutako arroka-gorputza, alegia.

en	period
es	periodo
fr	période

periodo geokronologiko

en	geochronologic period
es	periodo geocronológico
fr	période géochronologique

periprokto

en	periproct
es	periprocto
fr	péripsecte

perisinklinal

en	perisincline
es	perisinclinal
fr	périsinclinal

peritektiko

en	peritectic
es	peritético
fr	péritectique

perkolazio

en	percolation
es	percolación
fr	percolation

perla

en	pearl
es	perla
fr	perle

perlita

en	perlite
es	perlita
fr	perlite

perlitiko

en	perlitic
----	----------

es	perlítico
fr	perlitique

permafrost

en	permafrost
es	permafrost
fr	permafrost

► lurzoru

Permian

Paleozoiko eraren (eta eratemaren) periodo (eta sistema) gazteena, Karboniferoaren ondorengoa eta Mesozoikoaren aurrekoa, duela 290 eta 245 Ma artekoa. Hiru epoka (eta serie) ditu bere baitan: Rotliegendesa, Guadalupiarra eta Lopingiarra.

en	Permian
es	Pérmico
fr	Permien

Permo-Trias

en	Permo-Trias
es	Permo-Trias
fr	Permo-Trias

perovskita

en	perovskite
es	perovskita
fr	perovskite

perpendikular

en	perpendicular
es	perpendicular
fr	perpendicular

pertita

Feldespatu alkalinoaren aldaera, non potasio-feldespatoa (gehienetan mikroklima), mineral ostalaria, sodio-feldespatozko (albita) elkarrazkunde paralelo edo subparaleloak barnean dituen. Egitura hauek hainbat formakoak izan daitezke: lamelak, sokak, tantak edo zain irregularrak. Tamainari dagokionez, begi hutsez edo mikroskopio elektronikoz ikus daitezke. Tamaina eta forma aldakorreko egitura hauen jatorria desnahaste edota birkristaltze prozesuetan dago.

Noizbehinka, alderantziz gertatzen da, hots, albitetan tartekaturik potasio-feldespa-

tozko xaflak agertzen dira. Honi **antipertita** deritzo.

en perthite
es pertita
fr perthite

➤ **feldespato**

pertitiko

en perthitic
es pertítico
fr perthitique

petrifikazio

SIN: harritze

en petrification
es petrificación
fr petrification

petrofabrika

en petrofabric
es petrofábrica
fr pétrofabrique

petrofisika

en petrophisic
es petrofísica
fr pétrophisique

petrogenesi

en petrogenesis
es petrogénesis
fr pétrogénèse

petrografia

Arroken sailkapen sistematikoaz eta deskripzioaz arduratzen den geologiaren adarra. Sailkatu eta deskribatu beharreko arroka-moten arabera, petrologia sedimentario, metamorfiko eta igneoa bereizten dira.

en petrography
es petrografía
fr pétrographie

petrolio

Materia organikoaren diagenesiaren kausaz eratzen diren hidrokarburoen multzoa. Hidrokarburo hauek karburo aseaz edo parafinikoez, hidrokarburo ziklikoez edo naftenikoez

eta, batzuetan, hidrokarburo aromatikoez osatuta daude. Petrolio bihurtuko den materia organikoa, hil ondoren ingurune anaerobioetan metatzen diren izaki planktonikoez osatuta dago gehienbat.

en petroleum
es petróleo
fr pétrole

petrolio-geologia

en petroleum geology
es geología del petróleo
fr géologie pétrolière

petrolio-leiho

en oil window
es ventana de petróleo
fr fenêtre à huile

petrolio-tranpa

en petroliferous trap
es trampa petrolífera
fr piège pétrolière

petrologia

Arroken deskribapena (petrografia), sorre-ra, azaleratzea, egitura eta historia ikertzen duen geologiaren atala. Hiru alorretan banatzen diren datuak jasotzen ditu petrologiak:

- Esparru teorikoa: naturako sistemen berdintsuak diren sistema fisiko-kimikoen portaera teorikoa ikertzen da (**petrologia teorikoa**).

- Esparru esperimental: laborategian sistemen portaera aztertzen da, naturan diren aldagaiak errepikatuz (**petrologia esperimental**).

- **Petrologia klasikoa** edo arroka naturalen ikerketa petrologikoa. Hauxe da petrologiaren betiko helburua. Kristal- eta molekula mailatik hasita, kartografia eta eskualde mailaraino heltzen da; helburua lortzeko elkarren artean erlazioatutako hiru bide daude:

- Landa-erlazioak. Ikerketa horren bidez, arroka-gorputzen geometria, gorputzen denbora/espazio erlazioak, mesoegiturak, fabrikak etab. ezagutzen dira.

- Ikerketa petrografikoak, edo kristalaren edo garauen arteko erlazioak (ehundura eta

mikroegiturak), osaera modalak, sailkapen petrografikoak, etab. ezagutzen laguntzen du.

- Ikerketa geokimikoak, arroken edo mineralen osaera kimikoa finkatzen laguntzeaz gain, erlazio isotopikoen analisisien bitartez, adin absolutua, presio- eta tenperatura-baldintzak eta, askotan, jatorri-eskualdearen kokapena eta izaera ezagutzen laguntzen du.

Nahiz eta sarritan aipatutako esparruak banaka landu, nahitaezkoa da, ahal denean behintzat, batera erabiltzea eredu petrogenetiko koherenteak ezarri ahal izateko.

- en petrology
- es petrología
- fr pétrologie

➤ **geologia**

Piacenziar

- en Piacencian
- es Piacenciense
- fr Piacencien

piezoelektrizitate

- en piezoelectricity
- es piezoelectricidad
- fr piézoélectricité

piezometriko

- en piezometric
- es piezométrico
- fr piézométrique

piezometro

Lurpeko ur-presioa neurtzeko balio duen lurzoruan bertikalki sartutako tutua. Tutuaren behealdeak urarekiko ukipenean egon behar du.

- en piezometer
- es piezómetro
- fr piézomètre

pigeonita

$\text{Ca}_{0.25}(\text{Mg}, \text{Fe})_{1.75}\text{Si}_2\text{O}_6$. Piroxenoen taldeko inosilikato monoklinikoa.

- en pigeonite
- es pigeonita
- fr pigeonite

pigidio

- en pygidium
- es pigidio
- fr pygidium

pignometro

- en pignometer
- es pignómetro
- fr pignomètre

pikor

- en grain
- es grano
- fr grain

pikor-

 **pikortsu**

pikor arteko

- en intergranular
- es intergranular
- fr intergranulaire

pikor-ertz

- en grain border
- es borde de grano
- fr bordure de grain

pikor-hautespen

- en graded bedding
- es granoselección
- fr granoclasement

pikor-muga

- en grain boundary
- es límite de grano
- fr limite de grain

pikortsu

SIN: pikor-

- en granular
- es granudo; granular
- fr granulaire

pikrita

- en picrite
- es picrita
- fr picrite

pilatze

- en piling
 es amontonamiento; apilamiento
 fr empilement; entassement

pilatze-akats

- en stacking fault
 es defecto de apilamiento
 fr faute d'empilement

> plano-akats**pillow laba****☞ kuxin-laba****pinakulu**

- en pinnacle
 es pináculo
 fr pinacle

pingo

- en pingo
 es pingo
 fr pingo

pinnita

- en pinnite
 es pinita
 fr pinnite

pipa

- en pipe
 es pipa
 fr pipe

pipita

- en pepita
 es pepita
 fr pépite

pipkrake

- en pipkrake
 es pipkrake
 fr pipkrake

piralspita

- en pyralspite
 es piralspita
 fr pyralspite

piramidal

- en pyramidal
 es piramidal
 fr pyramidal

piramide

- en pyramid
 es pirámide
 fr pyramide

pirargirita

- en pyrargyrita
 es pirargirita
 fr pyrargyrita

pirheliometro

- en pyrhelimeter
 es pirheliómetro
 fr pirhéliomètre

Piriniar


- en Pirenian
 es Pirenaica
 fr Pirenien

piriniar glaziar

- en pyrenean glacier
 es glaziar pirenaico
 fr glacier pyrénéen

pirita

FeS_2 . Sistema kubikoan kristaltzen den burdina sulfuroa. Nikela, kobaltoa, kobrea, zilarra edota urrea izan ditzake kantitate urritan. Distira metalkara eta urrearen antzeko kolore



Pirita: Ambasaguas. Errioxa.

horia du. Hori dela eta, eroen urrea deritzo. Azido sulfurikoa lortzeko erabiltzen da eta, oxidatu ondoren, burdina lortzeko ere bai.

- en pyrite
- es pirita
- fr pyrite

piritizazio

- en pyritization
- es piritización
- fr pyritisation

pirofilita

- en pyrophyllite
- es pirofilita
- fr pyrophyllite

piroklastiko

- en pyroclastic
- es piroclástico
- fr pyroclastique

piroklasto

Jaurtiketa bolkanikoetan isuritako partikuletako bakoitza. Hauen baitan, tamainaren arabera sailkapena egiten da.

- en pyroclast
- es piroclasto
- fr pyroclaste


pirolita

- en pyrolite
- es pirolita
- fr pyrolite

pirolusita

MnO₂. Sistema tetragonaleko manganeso oxido beltza. Maiz agregatu dendritikoak (landare itxurakoak) ematen ditu, landare fosilekin nahastu behar ez direnak. Manganesoaren meagarrantzitsuena izanik, beiragintzan eta altzairugintzan erabiltzen da.

- en pyrolusite
- es pirolusita
- fr pyrolusite



Pirolusita: agregatu dendritikoa. Soloviejoko meatokia. Huelva.

NEURRIA (mm)	PIROKLASTO-ZATIAK		METAKIN LITIFIKATU GABEA	BALIOKIDE LITIFIKATUA (Arroka piroklastikoa)	
256	Larria Fina	Bonba (borobildua)	Harrizarra (angelutsua)	Aglomeratua (bonbaz osatua) edo bretxa piroklastikoa	Aglomeratua (bonbaz osatua) edo bretxa piroklastikoa
64	Lapillia		Lapilli-metakina	Lapilli-arroka	
2					
0.0625	Larria Fina	Errautsa	Errauts-metakina	Toba	

Piroklastoak, tamainaren arabera eginiko sailkapena.

pirometamorfismo

- en pyrometamorphism
- es pirometamorfismo
- fr pyrométamorphisme

pirometasomatismo

- en pyrometasomatism
- es pirometasomatismo
- fr pyrométasomatose

piromorfita

- en pyromorphite
- es piromorfita
- fr pyromorphite

piropo

$Mg_3Al_2Si_3O_{12}$. Granateen taldeko nesosilikatoa. Gorri iluna edo ia beltza izan ohi da.

- en pyrope
- es piropo
- fr pyrope

pirosfera

- en pyrosphere
- es pirosfera
- fr pyrosphère

piroxenita

- en pyroxenite
- es piroxenita
- fr pyroxénite

piroxeno

XYZ_2O_6 . X: Ca^{2+} , Na^+ , Mn^{2+} , Fe^{2+} , Mg^{2+} eta Li^+ ; Y: Mn^{2+} , Fe^{2+} , Mg^{2+} , Fe^{3+} , Al^{3+} , Cr^{3+} eta Ti^{4+} ; Z: Si^{4+} eta Al^{3+} (posizio tetraedrikoetan). Kate bakuneko inosilikatoa. Piroxenoek esfolazio prismatiko ona dute kristalen aurpegiekiko paraleloak diren bi norabideetan, 87° eta 93° -ko angeluak osatuz. Piroxenoek hainbat segida osatzen dituzte, eta arruntenak, hiru osagaiz osatutako sistema kimikoaren arabera adieraz daitezke: $CaSiO_3$ (wollastonita, piroxenoidea)- $MgSiO_3$ (enstatita)- $FeSiO_3$ (ferrosilita). Triangelu honen beheko erdigunean diopsido $CaMgSi_2O_6$ -hedenbergita $CaFeSi_2O_6$ eta enstatita-ferrosilita segidak daude. Augitaren osaera (Ca, Na)(Mg, Fe, Al)(Si, Al) $_2O_6$ diopsido-hedenbergita segidaren antzekoa da, baina hurrengo ordezkapen

hauek aurkitu ohi dira: sodioa kaltzioaren ordezt, aluminioa magnesio edo Fe^{2+} -aren ordezt, eta aluminioa silizioaren ordezt. Pigeonitaren osaera $Ca_{0.25}(Mg, Fe)_{1.75}Si_2O_6$ enstatita-ferrosilita segidarena da, baina kaltzio proportzio handiagoa du. Bestalde, sodio-piroxenoak daude: aegirina $NaFeSi_2O_6$ eta jadeita $NaAlSi_2O_6$. Piroxeno arraro bat, litioduna $LiAlSi_2O_6$, espodumena da. Piroxeno gehienak monoklinikoak dira (klinopiroxenoak), enstatita-ferrosilita segidakoak izan ezik. Azken hauei, ortorronbikoak direnez, ortopiroxenoak deritze. Piroxenoak eta anfibolak analogoak dira osaera kimikoari dagokionez, baina habitu desberdinetan kristaltzeko joera dute: piroxenoek prisma labur eta lodiak eratzen dituzte, anfibolak kristal luzeagoetan agertzen diren bitartean. Piroxenoak arroka ignoen osagai arruntak dira eta gradu altuko baldintza metamorfikoetan anfibolek erreakzionatu eta piroxenoak ematen dituzte.

- en pyroxene
- es piroxeno
- fr pyroxène

piroxenoide

Sistema triklinikokoan kristaltzen den inosilikatoa. Piroxenoetan bezala, Si:O erlazioa 1:3 da, baina hauen egitura desberdina da. Egituren arteko desberdintasun horrek piroxenoideen habitua baldintzatzen duelarik, piroxenoak baino zuntzuagoak dira. Piroxenoide arruntena wollastonita ($CaSiO_3$) da.

- en pyroxenoid
- es piroxenoide
- fr pyroxénoid

pirrotita

- en pyrrhotite
- es pirrotita
- fr pyrrhotite

pisolito

2 mm baino gehiagoko diametroa eta egitura zentrokidea duen mikritazko konkrezio esferikoa. Askotan kaltzio karbonatoz osatzen da, baina beste zenbaitetan algen inkrustazio prozesu biokimikoen bidez eratzen da. Pisolitoak ooideak baino handiagoak eta irregularrago-

ak dira, nahiz eta egitura zentrokide eta erradial berdinak izan. Batzuetan pisolideez osatuta dagoen arrokari pisolito deritzo.

en	pisolith
es	pisolito
fr	pisolithe

pitoi

en	piton
es	pitón
fr	piton

pitzadura

en	cleft
es	hendidura
fr	crevasse

pitza(tu)

en	cleave
es	hendir
fr	cliver

plagiogranito

en	plagiogranite
es	plagiogranito
fr	plagiogranite

plagioklasa

en	plagioclase
es	plagioclasa
fr	plagioclase

➤ feldespatu

plaka

Lurraren litosferak dituen zati higikorretako bakoitza. Plaken arteko higidura erlatiboen arabera hiru muga mota izan ditzakete: muga dibergentea (ozeano-gandorra), muga konbergentea (subdukzio-eremua), eta muga transformatzailea (faila transformatzailea). Plaka bakoitza lurrazal ozeaniko eta kontinentalez edo erabat lurrazal ozeanikoz eratuta egon daiteke.

en	plate
es	placa
fr	plaque

plaka-tektonika

Plaken mugimendua eta mugimendu honek eragindako prozesu guztiak ikertzen dituen tektonikaren adarra. Izen bera erabiltzen da XX. mendeko 1960.eko hamarkadaz geroztik, batez ere ozeanoen azpiko arroken ikerketaren ondoren, plaken mugimenduak, ondorioak eta zergatiak azaltzeko eratu zen teoriari erreferentzia egiteko.

en	plate tectonics
es	tectónica de placas
fr	tectonique des plaques

plakodermo

en	placoderm
es	placodermo
fr	placoderme

planispiral

en	planispiral
es	planispiral
fr	plainpiral

plankton

Ozeano, ibai eta aintziren ur-azaletik gertu pasiboki igerian bizi diren bizidun txikiek osatutako multzoa. Uretako kate trofikoaren lehenengo maila da eta erreinu askotako izakiek osatzen dute. Planktonaren barruan bi talde nagusi bereizten dira: zooplanktona eta fitoplanktona.

en	plankton
es	plancton
fr	plancton

planktoniko

en	planktonic
es	planctónico
fr	planctonique

plano axial

SIN: ardatz-plano

en	axial plane
es	plano axial
fr	plan axial

plano-akats

Kristal-egituraren planoaren inguruan gertatzen den akatsen kontzentrazioa. Eskala han-

dian suertatzen den ordenaren eta bi dimentsio-ko gainazalaren simetriaren apurketa eragiten du. Akatsik ezagunenak pilatze-akatsak dira: geruzen sekuentzia erregularrean geruzaren bat ez da agertzen edo honen kokapena ez dagokio sekuentzia orokorrari.

- en plane defect
- es defecto planar
- fr défaut plan

plano-deformazio

- en plane strain
- es deformación planar
- fr déformation plane

plastikotasun

- en plasticity
- es plasticidad
- fr plasticité

plataforma siliziklastiko

Itsasoko inguru neritikoan metatutako material terrigeno ez osatutako sistema sedimentarioa. Plataforma siliziklastikoak korronteen menpekoak, ekaitzen menpekoak edo mareen menpekoak izan daitezke.

- en siliciclastic platform
- es plataforma siliciclástica
- fr siliciclastique plate-forme

plataforma-ertzeko sistema-elkarte

- en shelf-margin wedge systems tract
- es cortejo de borde de plataforma
- fr cortège de bordure de plate-forme

plataforma-glaziar

- en platform glacier
- es glaciario de plataforma
- fr glacier de plate-forme

plazentario

- en placental
- es placentario
- fr placentaire

plazer

- en placer

- es placer
- fr placer

Pleistozeno

- en Pleistocene
- es Pleistoceno
- fr Pléistocène

► Kuaternario

pleokroismo

- en pleochroism
- es pleocroísmo
- fr pléochroïsme

plesiomorfismo

- en plesiomorphism
- es plesiomorfismo
- fr plésiomorphisme

plesiosauru

- en plesiosaur
- es plesiosaurio
- fr plésiosaurus

pleura

- en pleura
- es pleura
- fr plèvre

pleura-

☞ pleural

pleural

SIN: pleura-

- en pleural
- es pleural
- fr pleural

pleurodiro

- en pleurodira
- es pleurodiro
- fr pleurodira

Pliozeno

- en Pliocene
- es Plioceno
- fr Pliocène

► Neogeno

plubial

SIN: euri-

en	pluvial
es	pluvial
fr	pluvial

plubiografo

en	pluviograph
es	pluviógrafo
fr	pluviographe

plubiometria

Prezipitazioen izaeraz, neurketaz eta neurketa-teknikez arduratzen den esparrua.

en	pluviometry
es	pluviometría
fr	pluviométrie

plubiometro

en	pluviometer
es	pluviómetro
fr	pluviomètre

plubionibal

en	pluvionival
es	pluvionival
fr	pluvionival

plubiositate

en	rainfall
es	pluviosidad
fr	pluviosité

plubioskopio

en	pluvioscope
es	pluvioscopio
fr	pluvioscope

plutoi

Intrusio ignea.

en	pluton
es	plutón
fr	pluton

plutoniko

en	plutonic
es	plutónico
fr	plutonique

plutonismo

en	plutonism
es	plutonismo
fr	plutonisme

Podolskiar

en	Podolskian
es	Podolsquiense
fr	Podolskien

podzol

en	podzol
es	podsol
fr	podzol

> lurzoru**poikilitiko**

en	poikilitic
es	poiquilítico
fr	poecilitique

poikiloblastiko

en	poikiloblastic
es	poiquiloblástico
fr	poeciloblastique

poikiloblasto

en	poikiloblast
es	poiquiloblasto
fr	poeciloblaste

polar

en	polar
es	polar
fr	polaire

polaritate

en	polarity
es	polaridad
fr	polarité

polaritate-zona

en	polarity zone
es	zona de polaridad
fr	zoné de polarité

polarizadore

en	polirizing
----	------------

es polarizador
fr polarisant

polariza(tu)


en polarize
es polarizar
fr polariser

polarizazio

en polarization
es polarización
fr polarisation

polen

en pollen
es polen
fr pollen



Polena: mikroskopio elektronikoz egindako argazkia.

polianita

en polianite
es polianita
fr polianite

poliedro

en polyhedron
es poliedro
fr polyèdre

polifiletiko

en polyphyletic
es polifilético
fr polyphylétique

poligenetiko

en polygenetic
es poligenético
fr polygénétique

poligeniko

en polygenic
es poligénico
fr polygénic

poligonal

en polygonal
es poligonal
fr polygonal

poligonizazio

en polygonization
es poligonización
fr polygonisation

poligono

en polygon
es polígono
fr polygone

polikristalino

en polycrystalline
es policristalino
fr polycristallin

polikroismo

en polychroism
es policroismo
fr polychroïsme

polikromia

en polychromy
es policromía
fr polychromie

polilokular

en polylocular
es polilocular
fr polyloculaire

polimerizazio

en polymerization
es polimerización
fr polymérisation

polimero

en	polymere
es	polímero
fr	polymère

polimetamorfismo

en	polymetamorphisme
es	polimetamorfismo
fr	polymétamorphisme

polimiktiko

en	polymictic
es	polimíctico
fr	polygénétique

polimorfismo

◆ Espezie bereko aleek morfologia desberdinak lortzeko duten ahalmena.

◆ Substantzia kimiko batek kristal-egitura desberdinak izateko ahalmena. Kaltzio karbonatoa (CaCO₃) adibidez sistema erronbikoan (aragonitua) eta sistema erronboedrikoan (kaltzita) kristal daiteke.

en	polymorphism
es	polimorfismo
fr	polymorphisme

polimorfo

Substantzia kimiko baten kristal-egituretako bakoitza.

en	polymorphous
es	polimorfo
fr	polymorphe

polioplakoforo

en	polyplacophoran
es	polioplacóforo
fr	polyplacophore

polipo

en	polyp
es	pólipo
fr	polipe

politipismo

en	polytypism
es	politipismo
fr	polytypisme

polizikliko

en	polycyclical
es	policíclico
fr	polycyclique

polje

en	polje
es	poljé
fr	polje

> karst

polo

en	pole
es	polo
fr	pôle

poluzio

en	pollution
es	polución
fr	pollution

pomez harri

☞ aparharri

ponor

en	ponor; shaft
es	ponor
fr	ponor

> karst

ponpaketa

en	pump
es	bombeo
fr	pompage

ponpaketa-putzu

Akuiferoko ura lurpetik azaleraino ponpatuz ateratzeko egindako zundaketa.

en	pumping well
es	pozo de bombeo
fr	pompage puits

Pontiar

en	Pontian
es	Pontiense
fr	Pontien

populazio

en	population
es	población
fr	population

porfiriko

en	porphyritic
es	porfídico
fr	porphyrique

porfirita

en	porphyry
es	porfirita
fr	porphyre

porfiro

Ehundura porfirikoa duen arroka igneo azpibolkanikoa, fenokristalak beira bolkanikoz edo mikrokristalez eratutako matrizeaz inguratuturik daude.

en	porphyry
es	pórfido
fr	porphyre

porfiroblastiko

en	porphyroblastic
es	porfidoblástico
fr	porphyroblastique

porfiroblasto

en	porphyroblast
es	porfidoblasto
fr	porphyroblaste

porfiroide

en	porphyroid
es	porfiroide
fr	porphyroïde

porfiroklastiko

en	porphyroclastic
es	porfidoclastico
fr	porphyroclastique

porfiroklasto

en	porphyroclast
es	porfidoclasto
fr	porphyroclaste

poro

en	pore
es	poro
fr	pore

porositate

Arroka edo lurzoruaaren bolumenean, isolaturik edo konektaturik dauden zirrikituek osatzen duten portzentaia.

en	porosity
es	porosidad
fr	porosité

porotsu

en	porous
es	poroso
fr	poreux

Portlandiar

en	Portlandian
es	Portlandiense
fr	Portlandien

portzelana

en	porcelaine
es	porcelana
fr	porcelane

portzellanakara

en	porcelaneous
es	porcelanáceo; porcelanado
fr	porcelanéé

portzellanita

en	porcelainite
es	porzellanita
fr	porzellanite

postektoniko

en	posttectonic
es	posttectónico
fr	post-tectonique

posteskistoso

en	postschistose
es	postesquistoso
fr	postschisteux

postglaziar

- en postglacial
- es postglacial
- fr postglaciaire

postorogeniko

- en postorogenic
- es postorogénico
- fr post-orogénique

postzinematiko

- en postkinematic
- es postcinemático
- fr postcinématique

potentzia ortogonal

- en orthogonal thickness
- es potencia ortogonal
- fr épaisseur orthogonal

Potsdamiar

- en Potsdamian
- es Potsdamiense
- fr Postdamien

pozzolana

- en pozzolana
- es puzolana
- fr pouzzolane

Pragiari

- en Praguian
- es Praguense
- fr Praguien

preeskistoso

- en preschistose
- es preeskistoso
- fr preschisteux

prehnita

- en prehnite
- es prehnita
- fr prehnite

preorogeniko

- SIN: orogenia aurreko
- en preorogenic

- es preorogénico
- fr antérieur à l'orogène

presio atmosferiko

- en atmospheric pressure
- es presión atmosférica
- fr pression atmosphérique

presio gidatu

Plaka litosferiko baten higiduraren ondorioz gorputz batek jasandako norabide finkoko presioa.

- en guided pressure
- es presión dirigida
- fr pression guidée

presio hidrostatikoa

- en pressure hydrostatic
- es presión hidrostática
- fr pression hydrostatique

presio litostatiko

Material batek gainean dituen beste materialen pisuaren ondorioz jasaten duen presioa. Adierazpen fisikoa honakoa da: $P_L = r \cdot g \cdot h$, non r =goiko materialen dentsitatea, g =grabitate-indarra eta h =goiko materialen lodiera (sakonera) diren.

- en lithostatic pressure
- es presión litostática
- fr pression lithostatique

presio-buztan

- en strain fringe
- es cola de presión
- fr ombre de pression

presio-disoluzio

- en pressure-solution
- es disolución por presión
- fr dissolution par pression

presio-itza

- en pressure shadow
- es sombra de presión
- fr ombre de pression

pretektoniko

- en pretectonic
- es pretectónico
- fr préfectonique

prezesio

- en precession
- es precesión
- fr précession

prezesio-kamera

- en precession camera
- es cámara de precesión
- fr chambre de précession

prezinematiko

- en prekinematic
- es precinémático
- fr précinématique

prezipitazio

- en precipitation
- es precipitación
- fr précipitation

prezipitazio-zona

- en precipitation zone
- es zona de precipitación
- fr zone de précipitation

Priaboniar

- en Priabonian
- es Priaboniense
- fr Priabonien

Pridoli

- en Pridoli
- es Pridoli
- fr Pridoli

> Siluriar**primate**

- en primate
- es primate
- fr primate

Priskoar

Eon (eta eontema) zaharrena, duela 4.560 eta 4.000 Ma artekoa.

- en Priscoan
- es Priscoense
- fr Priscoen

prisma

- en prism
- es prisma
- fr prisme

prismatiko

- en prismatic
- es prismático
- fr prismatique

probintzia

- en province
- es provincia
- fr province

probintzia faunistiko

- en faunistic province
- es provincia faunística
- fr province faunistique

probintzia metalogeniko

- en province metallogenic
- es provincia metalogénica
- fr province métallogénic

probintzialismo

- en provincialism
- es provincialismo
- fr provincialisme

prodelta

- en prodelta
- es prodelta
- fr prodelta

profil

SIN: soslai

- en profile
- es perfil
- fr profil

profil sismiko

- en seismic profile
- es perfil sísmico
- fr profil sismique

profil topografiko

- en topographic profile
- es perfil topográfico
- fr profil topographique

progradazio

Gorputz sedimentarioen aurreranzko hazkunde graduala.

- en progradation
- es progradación
- fr progradation

proiekzio angeluberdin

- en equal-angle projection
- es proyección equiangular
- fr projection équiangulaire

proiekzio azaleraberdin

- en equal-area projection
- es proyección equiareal
- fr projection équiaire

proiekzio estereografiko

- en stereographic projection
- es proyección estereográfica
- fr projection stéréographique

prokarioto

- en procaryote
- es procariota
- fr procaryote

prolatu

- en prolate
- es prolato
- fr prolate

proparia

- en proparian
- es proparia
- fr propariè

propilita

- en propylite
- es propilita
- fr propylite

propilitizazio

- en propylitization
- es propilitización
- fr propylitisation

prospekzio

- en prospection
- es prospección
- fr prospection

prostrako

- en proostracum
- es prostraco
- fr proostracum

proterozoiko

Arkearraren ondorengo eta Fanerozoikoaren aurreko eona (eta eontema), duela 2.450 eta 570 Ma inguru artekoa. Ez dago erabateko ziurtasunik Euskal Herrian Proterozoikoko arroka-ko azaleramenduei dagokienez, baina baliteke Nafarroa Beherea eta Zuberoa arteko Ursuia mazizoko arroka garai honetakoak izatea. Hala izanez gero, hauek lirarteke Euskal Herrian azaleratutako arroka zaharrenak.

- en proterozoic
- es proterozoico
- fr proterozoïque

protokataklasita

- en protocataclasite
- es protocataclasita
- fr protocataclasite

protolito

Arroka metamorfiko edota magmaren arroka ama. Adibidez, ortogneisaren protolitoa granitoa izan daiteke, eta magma granitikoarena arroka pelitatsua edota kuartzo-feldespatozkoa.

- en protolith
- es protolito
- fr protolithe

protomilonita

- en protomylonite
- es protomilonita
- fr protomylonite

protozoo

- en protozoan
- es protozoo
- fr protozoaire

proustita

- en proustitite
- es proustita
- fr proustitite

prozesu glaziar

- en glacial process
- es proceso glaziar
- fr procès glaciaire

prozesu periglaziar

- en periglacial process
- es proceso periglaziar
- fr procès périglaciaire

psammita

- en psammite
- es psamita
- fr psammite

psammitiko

- en psammitic
- es psamítico
- fr psammitique

pseudokarst

- en pseudokarst
- es pseudokarst
- fr pseudokarst

pseudomorfismo

- en pseudomorphism
- es pseudomorfismo
- fr pseudomorphisme

pseudomorfosi

- en pseudomorphosis
- es pseudomorfosis
- fr pseudomorphose

pseudorafe

- en pseudoraphe
- es pseudorafe
- fr pseudoraphé

pseudosimetria

- en pseudosymmetry
- es pseudosimetría
- fr pseudosymétrie

pseudotakilita

- en pseudotachylite
- es pseudotaquilita
- fr pseudotachylite

psilofito

- en psilophyte
- es psilofito
- fr psilophyte

pteridoespermatu

- en pteridospermate
- es pteridoespermado
- fr ptéridospermé

pteridofito

- en pteridophyte
- es pteridofito
- fr ptéridophyte

pterosauru

- en pterosaur
- es pterosaurio
- fr ptérosauren

pudding

Britainia Handian biribiltasun handiko uharriz osatutako konglomeratua izendatzeko duten termino arrunta, zeinean kolore-contraste nabaria dagoen uharrien eta zementu edo garau fineko matrizearen artean.

- en puddingstone
- es pudinga
- fr poudingues

pull-appart arro

Norabide-failetan eraturako eta, normalean, tamaina erlatiboki txikia duten sedimenta-

pumita

zio-arro estentsionalak. Arro horietako mugak alde batetik bi norabide-faila dira eta bestetik, norabide-failak zeharkatzen dituzten bi faila normal, oro har eite erronboidala eratuz.

- en pull-apart basin
- es cuenca pull-apart
- fr pull-apart bassin

pumita

- en pumice
- es pumita
- fr ponce

punpellyita

- en pumpellyite
- es pumpellyita
- fr pumpellyte

puntu bero

Luma gorakorren burua desagertzean zutabeak jarduera mantentzen duenez, litosferan eragiten duen gorakada termiko askoz loka-lagoaren eremua. Zutabea egonkor mantentzen denez, gainetik igarotzen den plakan sumendi isolatuak eratzen dira, eta urrunduz doazen heinean jarduera galtzen dute (adibidez: Hawaii uharteak Ozeano Barean).

- en hot spot
- es punto caliente
- fr point chaud

puntu hirukoitz

- en triple point
- es punto triple
- fr point triple

puntu-akats

Kristal-egituraren puntuan (atomoan) ger-tatzen den akatsa. Hiru mota nagusi bereiz daitezke: Schottky akatsa, Frenkel akatsa eta ezpurutasunak. Lehenengoan katioien hutsuneak anioien hutsuneek berdintzen dituzte. Frenkel akatsean aldiz, katioien hutsuneak anioien zirrikituek berdintzen dituzte. Ezpurutasunen ka-

suan, atomo arrotza kristal-egituraren zirrikituetan edo beste atomoa ordezkatzuz agertzen da.

Ikus **kristal-akats**.

- en point defect
- es defecto puntual
- fr défaut ponctuel

Purbeck

- en Purbeck
- es Purbeck
- fr Purbeck

puskatze

- en fragmentation
- es fragmentación
- fr fragmentation

putzu

Barrutik hodia duen diametro txikiko eta ebakidura zirkularreko zundaketa bertikala. Metro gutxi batzuetatik ehunka metroko sako-neraraino hel daiteke.

- en well
- es pozo
- fr sondage

putzu artesiari

Akuifero gatibua zulatuta lurpeko ura putzuaren ahoaren gainetik ateratzen den zundaketa.

- en artesian well
- es pozo artesiario
- fr puits artésien

putzu beltz

- en black well
- es pozo negro
- fr puisard

putzu-dolina

- en pit sinkhole
- es dolina en pozo
- fr doline en puit

R

rabdosoma

en	rhabdosome
es	rabdosoma
fr	rhabdosome

rafe

en	raphe
es	rafe
fr	raphé

rake

Plano baten edozein lerroren eta plano horren lerro horizontalaren arteko angelua. Angelu hau planoaren gainean neurtzen da. Plano batek rake-balio bereko bi lerro dituzenez, bata bestetik bereizteko lerroaren noranzkoa adierazi behar da. Lerro baten rakea zenbakiz (rakearen balioa) eta hizkiz (rakearen noranzkoa) adierazten da (adibidez, 35° E).

en	pitch; rake
es	rake
fr	rake

ra a

en	raña
es	raña
fr	raña

Randiar

en	Randian
es	Randiense
fr	Randien

rapakivi

en	rapakivi
es	rapakivi
fr	rapakivi

ravinement

en	ravinement
es	ravinement
fr	ravinement

Rawtheyar

en	Rawtheyan
es	Rawtheyiense
fr	Rawtheyen

reg

en	reg
es	reg
fr	reg

rejalgar

AsS. Artseniko sulfuro monoklinikoa, eba-kierra eta gorri-horixka. Sarritan azaltzen da

oropimentearekin batera, elementu baliotsuak dituzten filoietan (Au, Ag, Pb, Hg, Sb).

en	realgar
es	rejalgar
fr	réalgar

rendzina

en	rendzine
es	rendzina
fr	rendzine

► lurzoru

resinita

en	resinite
es	resinita
fr	résinite

restita

en	restite
es	restita
fr	restite

rexiastasia

en	rhexistasy
es	rexiastasia
fr	rhexistasié

Rhaetiar

en	Rhaetian
es	Rhaetiense
fr	Rhétien

Rhuddiniar

en	Rhuddinian
es	Rhuddiniense
fr	Rhudinien

ribbon

◆ Mineral edo arroketan agertzen diren lerro edo xingola paraleloetako bakoitza; lerroak handiak badira, banda terminoa erabiltzen da.

◆ Deformazioaren eraginez elongazio handia eta lente-eitea lortzen duen kristal bakarra edo agregatu mineralbakarra.

en	ribbon
es	ribbon
fr	ruban

riebeckita

$\text{Na}_2\text{Fe}_3^{2+}\text{Fe}_2^{3+}\text{Si}_8\text{O}_{22}(\text{OH})_2$. Anfibolen taldeko inosilikato monoklinikoa, urdinxka (burdinaren proportzioa handitzen den neurrian, ilunago egiten da) eta zuntzua.

en	riebeckite
es	riebeckita
fr	riebeckite

Riedel zartadurak

en	Riedel shears
es	fracturas de Riedel
fr	faille de Riedel

Rietveld metodo

en	Rietveld method
es	método de Rietveld
fr	méthode de Rietveld

Rifear

en	Rifean
es	Rifeense
fr	Rifeen

rift

Inguru estentsionaletan faila arrunten eraginez lurrazal kontinentalean sortutako sakonune luze eta estua. Gertakizun sismiko eta bolkanikoak ohikoak dira sakonunean zehar. Rift-aren eboluzioaren ondorioz, kontinenteen apurketa gerta daiteke (adibidez Ekialdeko Afrikako rift-a). Rift ozeaniko izena, zabalkuntza-abiadura moteleko ozeano-gandorren gailurrean eratzen den zabalera txikiagoko pareko egitura izendatzeko erabiltzen da.

en	rift
es	rift
fr	rift

rifting

en	rifting
es	rifting
fr	rifting

rift-valley

en	rift-valley
es	rift-valley
fr	rift-valley

rimaya

- en rimaya
- es rimaya
- fr rimaya

rinkonelido

- en rynchonellide
- es rinconélido
- fr rhynchonelle

ripple

Harea- eta lohi-tamainako partikulez osatutako uhin itxurako ohe forma txikia (altuera <7.5 cm; uhin-luzera <60 cm). Ur-korronteek, olatuek eta haizeek eratzen dute.

- en ripple
- es ripple
- fr ripple

ripple marka

- en ripple mark
- es ripple mark
- fr ripple mark

Riss

- en Riss
- es Riss
- fr Riss

ritmita

- en rhythmite
- es ritmita
- fr rythme élémentaire

rod

- en rod
- es rod
- fr rod

Rodanotar

- en Rodanian
- es Rodaniense
- fr Rodanien

Rodinia

Duela 1.000 eta 725 Ma artean zegoen superkontinentea. Ustez garai haietan lurrazal kontinental gehiena superkontinente honetan



Olatuek eragindako **rippleak**. Egungo sedimentu hareatsuak. Urdaibai. Bizkaia.

rodokrosita

